

# AIARALDEA *hemen*



PAQUI BELDA GAJDOS:  
**“Erresidentzia pribatuetako erabiltzaileek arreta duina merezi dute, eta ez dute jasotzen”** 14-15 or.

ELLAKURIKO IGERILEKUAK:  
**Enpresa kudeatzailea salatu dute bertako langileek eta Udalak** 18-19 or.



## Erasotzailea lanean, erasoa jasan duena kalean



LAUDIO 8  
**Espazio publikoa arautzeko ordenantzaren zirriborroa aurkeztu dute**  
Otsailaren 28ra arte egongo da ekarpenak egiteko epea

AIARALDEA 12  
**Berdintasunaren Aldeko Martxa Neurtuaren edizio berria aurkeztu dute**  
Martxoaren 13an Laudio, Amurrio eta Aiara lotuko ditu aurkeztutako ibilbideak

KULTURA 18-21  
**Artziniegako Museoak badu etorkizuna hitzarmen berriari esker**  
Arabako Foru Aldundiak finantziazioa bermatuko du

KIROLA 26-27  
**Ekainaren 19an egingo dute Amurrio Trail lasterketa**  
Antolatzaileek kirol probaren nondik norakoak aletu dizkiote Aiaraldea Komunikabideari

ELKARREKIN  
INDARTSUAGOAK **IZAN GINEN  
GARA  
IZANGO GARA**



**EMAKUMEEN  
Nazioarteko Eguna**

#sarekosororitatea



# erreportajea



## Eraso matxistak gertatu arren, Tubos Reunidoseko Berdintasun Plana geldirik

LAB sindikatuak gogoratu du 2014an langile bat zigortua izan zela sexu abusuak egiteagatik lantegian eta, azkenean, kalean geratu zena eraso jasan zuen emakumea izan zela. Hala eta guztiz ere, Tubos Reunidosek ez du aurrera pausurik egin Berdintasun Plana osatzeko, nahiz eta 2020an egin behar zuten.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

LAB sindikatua nazkatu da Berdintasunak Tubos Reunidos enpresan jasotzen duen lanketaz eta salaketa publikoa egin du. Izan ere, 2007an onartutako legeen arabera, 250 langile baino gehiago dituzte konpainiek Berdintasun Plana ezarri beharko lukete. 15 urte igaro dira eta ez da horren berri izan Amurrioko lantegian.

### Sexu eraso lantegian

Tubos Reunidoseko enpresako zuzendaritzaren jardura faltak, dena den, ez du esan nahi gatazkarik ez denik gertatu fabrikari.

Hain zuzen, 2013ko urtarrilaren 16an langile batek sexu eraso egin zion garbiketako langile bati. Gertakariak epaitegian amaitu zuen eta gizona urtebeteko espetxe zigorra jaso zuen eta, horrez gain, 2 urteko urrunketa agindua ezarri zion epaileak.

Hori gutxi balitz, epaileak aipatu zion salatzaileari akusatua beste eraso baten egilea izan zela aurretik.

### Bata lanean, bestea kalean

Baina, eraso horren soka luzeagoa da. Berez, enpresak langilea kaleratu zuen gertatutakoaren berri izan zuenean, baina epaile batek itzuli zion lanpostua erasotzaileari,

argudiatuta ez zegoela bere kontrako sententzia irmorik.

Kaleratzearen aurka, zenbait lankidek sinadurak jaso zituzten eta zuzendaritzari aurkeztu zituzten. Horren ostean, gauza bat edo bestea dela medio, erasotzailearen kontrako epaia argitaratu zenean, enpresari ahaztu zitzaion helegitea jartzea eta, ondorioz, sexu gaizkileak bere lanpostuan jarraitu du gaurdaino.

Aldiz, eraso jasan zuen emakumeak, azpikontrata baten bitartez lan egiten zuenez, kalean bukatu zuen. Prozesu osoa mingarria izan zen emakumearentzat eta horren korolariora izan zen baja psikologikoan zegoen bitartean, enpresak dokumentua bidali ziola emakumeari. Horrek, fede onez sinatu zuen eta ondorioa izan zen kaleratua izan zela.

### Beste kasu bat

Epaitegira heldu gabe, 90ko hamarkadan antzeko egoera jazo zen Tubos Reunidosen eta iturri sindikalek azaldutakoaren arabera, enpresa barruan konpondu zuten; eraso jasan zuen emakumea erasotzailearen lanpostutik urrun kokatuta.

### Berdintasun plana

2007an onartu zituen Espainiar Gobernuak Berdintasun legeak eta horiek ezartzen zuten 250 langile baino gehiago duten

## erreportajea

enpresak derrigortuak zeudela berdintasuna sustatzeko plana garatzera.

Zentzu horretan, LABeko ordezkariak 2010ean eskatu zuen Tubos Reunidoseko zuzendaritzak egindako Berdintasun Plana. Enpresako arduradunek argudiatu zuten ez zutela partekatuko, hori egikaritzea lan hitzarmen berriaren sinaketaren menpe zegoelako. Lan Ikuskaritzak arrazoia eman zion sindikatuari eta plana bidali behar izan zieten langile ordezkariari.

#### Sexu jazarpen protokoloa

Lan agintaritzako ebazpen positiboaren ostean, eta 7 urtez aurrera pausu nabarmenik egon gabe, LAB sindikatuak berriro jo zuen Lan Ikuskaritzara salatzeke zuzendaritzak blokeatzen zuela oinarritzko prozedura Berdintasun Plana osatzeko. Zehazki, ez zuen akordio borondaterik sexu jazarpen protokoloa adosteko.

Berez, epaile batek sexu erasoa zigortu arren Tubos Reunidosen, enpresak ez du sexu jazarpenari aurre egiteko jarraibide zehatzik. LABek goraiatu du zuzendaritzak oztopatu duela tresna hori: “Zuzendaritzak nahi du ikerketa batzordean bera bakarrik egotea. Sindikatuok uste dugu langile ordezkari bat eta enpresako zerbitzu medikuen kide bat ere egon behar direla. Ez dutenez begi onezikusten, horrek ez du aurrera egin”.

## 2007an onartutako legeen arabera, 250 langile baino gehiago dituzte konpainiek Berdintasun Plana ezarri beharko lukete. 15 urte igaro dira eta ez da horren berririk izan Amurrioko lantegian

**Lan Ikuskaritzaren mehatxua**  
2020an Lan Ikuskaritzak komunikazioa bidali zion Tubos Reunidos enpresari, sindikatuen kexa jarraiki. Dokumentu horretan ikuskaritzak aztertu zuen enpresak garatutako ustezko Berdintasun Plana eta ondorioztatu zuen “Hiru orrialdeko txostenak” ez zuela ez diagnosirik, ez ekintza ezta helburu zehatzik ere.

Horren adibidea zen 2009an idatzitako testuan jasotzen zela batzordea sortu behar zutela planaren jarraipena egiteko eta, 10 urteren ostean, ez zegoela aktarik zehazteko nortzuk ziren bere kideak.

Gauzak horrela, Lan Ikuskaritzak gogoratu zion enpresari 2007tik derrigorrezkoa dela Berdintasun Plana eta, gainera, negoziatu behar zuela langile batzordearekin.

Hori egiteko 6 hilabete eman zizkion eta aipatu zion hori egin ezean, 6.250 euroko isuna jaso zezakeela.

#### 2021ean traba gehiago

Mehatxu horren ostean, hala ere, Berdintasun planak ez du garapen aipagarrikerik izan. Egia da iazko maiatzean enpresak eta sindikatuak ekin ziotela negoziazio batzordea sortzeari, baina harrezkero ez da urrats garrantzitsurik egin, nahiz eta Murgibe aholkularitza zerbitzua kontratatu den prozesua bideratzeko. Alegia, LABek

leporatzen die aholkulariei enpresaren aginduak jarraitzea, eta saiatzeari langile ordezkariak erabakimen eskubiderik gabe uzten batzordean.

Horrekin batera, aurrera egiteko gaitasun faltaren muina da, besteak beste, enpresak ez duela erraztu funtsezko daturik ganorazko diagnostia egiteko. Zehazki, sindikatuak nahi dute jakin langile ororen ordainsaria zein den, baloratzeko generoan oinarritutako diskriminazioa gertatzen den. Testuinguru horretan, lan-hitzarmenetik kanpo dauden emakumeak enpresako kolektiboaren zati handia dira, 27. Hitzarmenaren menpe ez daudenez, langile erakundeek ez dakite zein den euren egoera. Lan hitzarmenaren pean direnen artean, tailerretan 9 emakumezko baino ez daude eta bulegoetan 35.

LABek gogoratu du emakume eta gizonezko guztien soldatak ezagutzea ezinbestekoa dela, jakiteko lan bera egiteagatik diru bera jasotzen ote duten emakumeek eta gizonezkoek.

Sindikatuari arrazoia eman eta gero, Lan Ikuskaritzak nabardura egin zuen geroago, eta arrazoitu zuen datu horiek eman behar direla, baina izen abizenak zehaztu gabe. LABek uste du enpresak presioa egin duela, jakin ez dadin zenbat kobratzen duten buruzagiek, lan hitzarmenetik kanpo baitaude. Edonola ere, sindikatuak ados dago,

ez da ezinbestekoa jakitea nork kobratzen duen zenbat izen eta abizenez, baizik eta emakumezkoek eta gizonezkoek ordainsari bera jasotzen duten lan bera egiteagatik, nahiz eta lan hitzarmenetik kanpo egon.

#### Emakumeak: enpresaren %9

Berdintasun Planaren beharra sumatzeko Tubos Reunidosen, nahikoa da begiratzea zein den generoaren araberrako banaketa langileen artean.

Kopuru guztiei erreparatuta, ezinezkoa da ez ohartzea lantegiko tailerretan dagoen arrakala. 531 gizonezko daude bertan eta soilik 9 emakumezko. “Mentalitate patriarkalaren eta diskriminazioaren erradiografia” erantsi du LABek.

Horrez gain, zuzendaritzaren barruan dauden 27 emakumeen ordainsarien kopuruak ez dira ezagunak sindikatuentzat eta, ondorioz, ezin dute baloratu berdintasuna dagoen esparru horretan edo, aldiz, emakumezkoek gutxiago kobratzen duten.

#### Borondate eza

LAB sindikatuak behin eta berriro nabarmendu nahi du legea aspaldi dagoela eginda. Horrek barne biltzen du Berdintasun Plana egitearen derrigorrezko izaera, baina ez da horrelakorik gertatu.

Sindikatuaren aburuz, lan munduan edo langileek eurek

## Tubos Reunidos enpresako generoaren araberrako banaketa



Gizonak guztira:  
724



Emakumeak guztira:  
71

63 Lan-hitzarmenetik kanpo (zuzendaritza)

27 Lan-hitzarmenetik kanpo (zuzendaritza)

130 Lan-hitzarmen barruan (bulegoak)

35 Lan-hitzarmen barruan (bulegoak)

531 Langileak tailerretan

9 Langileak tailerretan



# erreportajea

egiten dute presioa aurrera pausuk lortzeko, edo denak jarraitzen du dagoen moduan: “Arau bat onartzeak ez du esan nahi betetzen denik”.

Halaber, lan ikuskaritzaren jarrera aktibo falta ere jarri dute mahai gainean: “Ez da inplikatzeko eta, ondorioz, enpresariak jarraitzen dute egiten nahi dutena”.

## 2013ko urtarrilaren 16an langile batek sexu erasoa egin zuen garbiketako langile baten kontra

### 2013ko kasua

2013an erasoa pairatu zuen emakumearekin hitz egin du Aiaraldea Komunikabideak. Gertatutakoa salatzeak arazo ugari ekarri zizkion eta nahiago du bere izena ez eman, baina ez dauka inolako arazorik bere esperientzia kontatzeko. Izan ere, sexu erasoa sufritu ez ezik, jende ugariaren gaizki-esateak eta kaleratzea ere jasan behar izan zituen.

9 urte igaro dira emakume haren erasoa jasan zuenetik bere lanpostuan, Tubos Reunidos enpresan, baina, hala ere, ez du ahaztu zer gertatu zitzaien eta zer nolako ondorio ekarri zizkion erasoa salatzeak. Hasieran jende askok babestuko zuela adierazi bazion ere, apurka-apurka zurrumurru zitelen erdian topatu zuen bere burua eta, azkenik, kaleratua izan zen.

Edonola ere, ez dezagun gehiegi aurreratu. Alegia, dena amesgaiztoa bilakatu baino lehen, Eulen enpresak eskaintako kontratua pagotxa iruditu zitzaion emakumeari: “Tubos Reunidoseko garbiketako lan egiten zuen pertsona batek lan murrizketa hartu zuen eta niri 5 urteko kontratua eskaini zidaten. Aukera ona zen niretzat, 06:00etatik 09:00ak arte beharrean nengoen eta maiz arratsaldetan ere lan ordu batzuk ematen zizkidaten”.

Hain zuzen, lanpostu horrek egonkortasun apurra eman zion emakumeari, aldaketa sakonetan buru-belarri baitzegoen: “Eulen

bidez Tubos Reunidosen lanean hasi baino apur bat lehenago dibortziatu nintzen eta diru sarrerak behar-beharrezkoak nituen nire semea hazteko”.

### Erasotzailearen agerpena

Bere postuan hasi eta gutxira, emakumeak topo egin zuen gerora eraso egingo zion gizonaekin. Elkar ezagutzen zuten aspaldi, nahiz eta konfiantza gutxi izan. Gizonak gonbidatu zuen kafe bat hartzera makinan eta mintzatu ziren. Emakumeak aipatu zuen dibortziatu berri zela eta besteak kontatu zion bikotea zuela.

Horrezkero, maiz kafea hartzen zuten elkarrekin, baina bion arteko giroa pozoitzen joan zen apurka-

## Erasotzaileak lantegian lanean jarraitzen du, erasoa jasan zuen emakumea kaleratua izan zen bitartean

apurka. Emakumeak gogoratzen duenez, “poliki-poliki hasi zen nire itxura fisikoari buruzko iruzkinak egiten. Handik gutxira, piropoak eta intsinuazioak etorri ziren. Gero eta babosoago jartzen ari zen, baina nik ez nion kasurik egiten. Orduan heldu ziren Gabonetako oporraketa, zorionez, bolada batean ez nuen berriro ikusi”.

### Erasoa

Oporraldia amaitu eta gero, zenbaitegunezegonzen gizona ikusi gabe, baina urtarrilaren 16an, lur azpian dauden komun batzuk garbitzen ari zelarrik, berriro agertu zen: “Nahiz eta bi aste lehenago hasi, niregana etorri zen urte berria

zoriontzeko aitzakiarekin. Ahoan muxukatzen saiatu zen. Harrapatu eta lurretik altxatu ninduen. Aurpegia atzera botatzen nionean, berak baliatzen zuen aukera bere gerrikoa nirera hurbiltzeko. Nabaritu nuen zakila tentetuta zuela eta nirekin igurtzen zela”.

Azkenean, emakumeak lortu zuen askatzea, eta zur eta lur geratu zen, geldirik, gertatutakoa sinistu ezinean. Hala ere, erasoa ez zen amaitu, eta gizonak komunera zioala esan zion: “Har diezazu zakila eta lagundu nazazu txisa egiten”. Orduan, behin ezustea gaindituta, emakumezkoa jabetu zen eraso larri baten biktima izan zela eta gizona kontrako irainak



## erreportajea



eta mehatxuak egin zituen, bakean uzteko behingoz.

### Salaketa

Erasoa pairatu bezain pronto, lantegian zuen lagun batengana jo zuen emakumeak. Adiskideak erasotzailearengana joan nahi zuen eta jipoitu, baina berak konbentzitu zuen ez egiteko: “Esan nion ez zuela merezi bizitza eta lanpostua pikutara bidaltzea nazkagarri horren erruz”.

Dena den, salatzea bera arazo bilakatu zen. Emakumeak ez zuen nahi jazotakoa berriro errepikatzea, baina, aldi berean, bazekien oihartzuna izan zezakeela gertakariak lantegian eta ez zuen gogorik polemikaren

erdian egoteko. Ondorioz, Eulen enpresako buruzagiarekin mintzatu zen eta azaldu zion sufritutakoa. Horrek, bere aldetik, giza baliabideen sailari jakinarazi zion: “Nik ez nuen nahi jendeak erasoaren berri izatea, baina azkenean Tubos Reunidoseko buruzagi bat jakinaren gainean jarriguen eta hori harremanetan jarri zen giza bitarteko arduradunekin”.

Hori dela eta, enpresak erabaki zuen erasotzailea kaleratzea, eta gertakaria lantegian zabaldu zen. Berehala, emakumeak nabaritu zuen langile askok bizkarra ematen ziotela: “Nire lankideek utzi zioten nirekin hitz egiteari eta salatza animatu ninduen

buruzagia nire aurka jarri zen. Hasi zen esaten gertatutakoa nire errua izan zela, “oso irekia” nintzelako. Nik erantzun nion burua oso irekia nuela, baina hankak nahi nuenarekin bakarrik irekitzen nituela. Horrezkero, gure arteko harremana okertu zen eta ez zidan lan ordu gehiago eskaini. Bat-batean, arratsalde lan egiteari utzi nion”.

### Intoxikazio kanpaina

Baina zailtasunak ez ziren hor amaitu. “Bat-batean, lantegian hasi ziren esaten ni dibortziatuta nengoela, eta erasoa asmatu nuela dirua eskuratzeko. Hori jakin izan nuenean, nazkatu nintzen eta lanaldia bukatu bezain pronto,

Ertzaintzako komisaldegira joan nintzen eta salaketa jarri nuen”.

Poliziak gizonezkoa atxilotu zuen eta galdetu zioten erasoari buruz. Orduan are gehiago gaiztotu zengiroa emakumearekin lantegian eta berari buruzko zurrumurruak eta gaizki-esateak biderkatu ziren: “Langile askok babestu ninduten, baina erasotzaileak bazituen lagunak eta horiek denetarik esaten zuten niri buruz. Adibidez, egun batean lankide batek galdetu zidan zer moduz nengoen eta negarrez hasi nintzen eta besarkatu nuen. Orduan hasi ziren esaten berarekin banuela zerbait. Denetarik asmatu zuten niri buruz. Aipatzen zuten emakume

erreza nintzela. Hasteko, emakume batek edonorekin egoteko gogoak baditu, askatasun osoa dauka horretarako, baina nire kasuan 30 urtez egon nintzen ezkondua eta dibortziatu nintzenetik ez dut bikoterik izan. Ondo nago horrela. Esaten zuten guztia gezurra zen”.

Presio horren guztiaren azpian, emakumezkoa geroz eta okerrago sentitzen hasi zen eta baja psikologikoa hartu behar izan zuen. Erabaki horren eskutik etorri behar zen sufrikarioaren korolaria: “Euleni jakinarazi nion baja hartu nuela eta esan zidaten ez zegoela arazorik, baina bidaliko zidatela paper bat etxera eta sinatu behar nuela. Gehiegi pentsatu gabe, dokumentua sinatu nuen. Ez nintzen ohartu hori eginda, enpresak eten ahal zuela 5 urteko kontratua. Horrela, kale gorrian geratu nintzen”.

Azkenean, ekainerako langabezian zegoen. Hau da, 5 hilabeteko tartean, sexu erasoa, difamazio kanpaina eta kaleratzea jasan behar izan zituen.

### Justizia eta injustizia

Gauzak horrela, epaiketaren eguna heldu zenean, emakumearen asmoa zen muturreraino eramatea salaketa, baina bere abokatuak ikusi zuen zein izango zen defentsaren ildo eta aholkatu zion akordioa lortzea, berari buruzko adierazpen iraingarri gehiago ez entzuteagatik, izandako bizipenaren ondoren. Alegia, erasotzaileak argudiatu nahi zuen emakume erasotua ez zekiela zeresaten zuten, dibortzioa gainditzeko medikuak Orfidala errezetatu ziolako.

“Azkenean, urtebeteko zigorra ezarri zion epaileak, eta ez zen kartzelan sartu. Niri 2.600 euroko kalte-ordainak kitatu zizkidan. Esan zutenei hau guztia diruagatik egin nuela, galdetu nahiko nieke, nora zoaz 2.600 euroekin? Nik lanpostua galdu nuen gertatutakoa salatzeagatik eta erasotzaileak, aldiz, enpresan jarraitu zuen”.

Salaketa egin izanaz damututa ote dagoen galdetzen zaionean, ordea, emakumeak oso argi dauka: “Ez, ez naiz damutzen, inondik inora. Garai oso latza izan zen, lanik eta dirurik gabe geratu nintzen, baina nire kabuz lortu nuen aurrera egitea. Semeari gauza asko ezkutatu behar izan nizekin, baina nire duintasunari eutsi nion. Langabezian geratu nintzen, baina burua ez nuen makurtu”.

# herriz herri

## Amurrio

### Tubos Reunidos enpresako langileek ez dute aurreakordioa onartu

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Otsailaren 15ean batzarra egin zuten Tubos Reunidos enpresako langileek. Bilera eta eztabaidaren helburua izan zen baloratzea LAB, CCOO eta UGT erakundeek zuzendaritzarekin sinatutako aurreakordioa.

Hiru egunez bozkatu dute langileek eta gehiengoak erabaki

du aurreakordioaren edukiak ukatzea. Gauzak horrela, emaitzak honakoak izan dira akordioari dagokionez: Ezezkoa 340 boto (%55), baiezkoa 269 boto (%43), zuriak 5 boto, baliogabeak 3 boto.

ELA eta ESK erakundeek txalotu dute langileek erabakitakoa. Euren ustez, adostutakoa ez zen nahikoa beharginen erosmen ahalmena berreskuratzeko, 5

urtez lan hitzarmena luzapen egoeran egonostean eta, ondorioz, soldatak izoztuta izan eta gero.

Bide horretatik, bai ELAk zein ESKk espero dute urtarrilaren 20an zehaztutako aldarrikapenak izatea oinarri etorkizunean eta lanuzteei berriro heltzea. ESKrentzat hori da lehenengo geltokia, gero lan hitzarmen berria negoziatu beharra baitago.

### Amurrioko Gaztetxeko ikasgela herriko ikasleentzako zabalik

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Amurrioko Gaztetxean atondutako ikasgelak atek zabaldu ditu berriro ere azterketa garaian murgilduta dauden ikasleei ikasteko espazio bat eskaintzeko helburuarekin. Amurrioko ikasgelek herriko ikasleen beharrak asetzeko espazio gutxi eta ordutegi murrizak dituztela adierazi dute Gazte Asanbladako kideek. Hori dela eta, espazio autogestionatua jarri dute Amurrioko gazteen eskura.

2020an atondu zuten espazioa, ikasleek beharrezko dituzten baliabideekin, Internetarako konexioa edota apunteak inprimatzeko aukera tartean. Espazioak ordutegi malgua eskaintzen du, eta hau erabiltzeko Interneten eskuragarri jarri duten inprimakia bete behar da soilik.

Ikasgelaz gain, bestelako proiektuetan murgilduta dago Amurrioko Gazte Asanblada, eta kontzertuak eta ekintza berriak iragarri dituzte datozen hilabetetarako.

MARTXOAK 4 | 20:00 | FAKTORIAN

## Aiaraldeko Mugimendu Feministaren

HISTORIAREN  
ERAKUSKETAREN  
aurkezpena

21:00 AIARALDEKO  
EMAKUME\* FEMINISTEN  
AFARIA!

Izen ematea: [www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus)  
Bazkideek 15€ / Ez-bazkideek 18€



**BORBOR**

FEMINISMO  
FAKTORIA

**AIARALDEKO  
MUGIMENDU FEMINISTA**

## Aiara

### 'Bizi puntu' estreinatu berri eginiko margoketa salatu du Udalak



Adreilueta egin dute margoketa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Margoketa bat egin dute iragan hilabetean Aiara Udalak estreinatutako 'bizi puntu'-etako batean. Tokiko erakundeak eman du gertatutakoaren berri: "Joan den urtarrilean jarri eta inauguratu zen Luiaondoko bizikletak konpontzeko eta garbitzeko geltokia pintaketa batekin esnatu da. Margoketa horrek kalte egiten dio udalerriko bizilagunekin eta bisitariekin erakutsi nahi duen irudi garbi eta zainduari".

Horren aurrean, Udalak nabarmendu du baliabide publikoak "zikindu eta txikitzen" dituztenek "ez dutela lekuri" Aiaran. "Udala ahalegin handia eta ilusioz beteriko lana egiten ari da udalerrian ditugun azpiegiturak hobetzeko eta eguneratzeko, eta pena handia da pertsona batzuek horiek ez errespetatzea eta zikintzen eta kaltetzen aritzea", argudiatu du Gentza Alamillo alkateak. Horren aurrean, udalerriko azpiegiturak zaintzeko gonbita luzatu die gobernuburuak herritarrei, "guztionak direlako".

# babestutako edukia



# BERDINTASUNA da bidea



ARRANKUDIAGA ZOLLO  
UDALA



Arakaldo



AMURRIO  
UDALA



Orozkoko Udala



OKONDOKO  
UDALA



URDUÑA *Berezko hiria*  
ORDUÑA *Ciudad natural*



LAUDIO  
UDALA




Aiarako Udala



Aiarako  
Kuadrilla



ARTZINIEGA  
UDALA




# herriz herri

## Laudio

Otsailaren 28ra arte egongo da ordenantzaren zirriborroari ekarpenak egiteko epea. Udalaren webgunearen bidez bidali daitezke ordenantzaren gaineko iritziak.

# Laudioko espazio publikoa arautzeko ordenantzaren zirriborroa aurkeztu du Udalak



Kalean taldean edatea debekatzen du ordenantzak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Espazio publikoa arautzeko ordenantzaren zirriborroa plazaratu du Laudioko Udalak. Duela bi aste egin zuen dokumentua aurkezteko bilera irekia. Orain, aldiz, otsailaren 28ra arte ireki du dokumentuaren gaineko ekarpenak egiteko epea.

Orain arte indarrean egon diren araudiak berriro eta bateratzea da ordenantza berriaren helburua, modu "argi, labur eta erraz" batean. Gauzak hala, orain arte hainbat ordenantzetan sakabanatuta egon diren udal-arauak bateratu ditu tokiko erakundeak.

Modu horretan, oso gauza

## Artiacheko, Tubacexeko, egoiotzetako, Autoglaseko edota Tubos Reunidoseko langileak bertaratu ziren Ibarra auzora

ezberdinak biltzen ditu dokumentuak: terrazen gaineko araudia, kultur jarduerak kalean egiteko eskatu beharreko baimenak edota aparkalekuei lotutako aferak, besteak beste.

### "Erabilera ezegokiak"

"Espazio publikoaren erabilera ezegokiak" ere zehazten ditu ordenantzak. Horien artean dago kaleko-zurruta. Araudiak debekatu egiten du pertsona taldeek espazio publikoetan edariak kontsumitzea, "edari alkoholdunak batez ere", honako egoera hauetakoren bat ematen denean: "pertsonei nahiz auzokideei eragozpenak sortzen zaizkienean, inguruko lasaitasuna kaltetzen denean

edo osasungaitasun-egoerak sortu daitezkeenean".

Debeku gehiago ere aurreikusi dituzte araudiaren zirriborroan, besteak beste sexu-langileen jarduna: "Prostituzio gisa hartutako ordainpeko sexu-zerbitzuak eskaintzea, eskatzea, negoziatzea eta egikaritzea".

"Gogaikarri edo arriskutsuak" izan daitezkeen jokoak arautzen ditu ere; kometak, urrutiko kontrolak edota droneak baliatzea, "jarduerahorietarako berariaz prestatutako zonalde eta denbora-tarteetan salbu". Debekatua egongo da ere iturri edo urmaeletan bainatzea.

### Isunak

Arau-hausteak hiru mailatan banatzen ditu ordenantzaren zirriborroak. Arau hauste arintzat hartzen ditu goian aipatutako "espazio publikoaren erabilera desegokiak" (beste hainbat konturekin batera), eta 750 euro arteko isunak proposatu dituzte kasu horietan. Arau-hauste larriak, aldiz, 750-1.500 euroko isunekin zigortzea planteatu dute araudiaren zirriborroan. Terrazei ezarritako baimenak urratzea edota publizitatea duten mahai, aulki edota eguzkitakoak jartzea sartzen da atal honetan, beste batzuen artean.

Arau-hauste oso larrien gaineko zigorrak, ordea, 3.000 eurotarairitsi daitezke. Espazio publikoa udal baimenik gabe okupatzea edota dokumentazio faltsu edo manipulatu aurkeztea barne hartzen ditu atal honek, besteak beste.

### Kalean lo egitea debekatuta?

Kalean "egunez zingauz" lo egitea ere "espazio publikoaren erabilera desegokitzat" hartzen du ordenantzak.

Horren aurrean, honako galdera planteatu daiteke: 750 euro arteko isunak ezarriko zaizkie kalean lo egiten duten pertsonari?

Aiaraldea Komunikabideak hori galdetu dio Udalari, eta honek erantzun dio ezetz. "Egia da oso interpretazio zorrotza egin daitekeela zentzu horretan, baina ez du zuzenean esaten", azaldu du tokiko erakundeak, "hori ez da, noski, ordenantzaren sentimendua edo filosofia, eta, beraz, ñabardurak egingo dira horrelako interpretazioak sor ez daitezen".

Udalak Aiaraldea komunikabideari azaldu dionez, "inguruko udalerrri batzuetako ordenantzak" erabili dituzte oinarri moduan Laudiokoaren zirriborroa osatzeko. Dena dela, tokiko erakundeak nabarmendu du orain mahai gainean dagoena "zirriborro bat" baino ez dela. "Udalak araudiko edukia azalduko du behin herritarren eta udal taldeen ekarpenak jasota. Plenora aurkeztuko dugun dokumentuan nabarmen aldatuko da".

### Terrazen araudia

Bestalde, terrazen gaineko arauak ere zehazten ditu dokumentuak. Oro har, terrazen luzera establezimenduko fatxadaren arabera izan behar dela aipatzen da, eta espresuki debekatzen du zorura ainguratutako elementuak instalatzea.

### Ekarpenak egiteko tartea

Arestian esan bezala, otsailaren 28ra arte egongo da dokumentuaren gaineko ekarpenak egiteko tartea. Udalaren webgunearen bidez bidali daitezke ordenantzaren gaineko iritziak.



## Laudio

# Gaztetxearen berririkiera epaiketara eramango du Udalak

Hainbat gazte identifikatu dituzte udaltzainek. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Larunbatean ireki zituen berriz ateak Laudioko Gaztetxeak, bi urtez itxita egon ostean. Orduetik hona hainbat ekintza eta auzolan egin dituzte bertan, espazioa berriz sozializatu eta atontzen hasteko helburuarekin. Baina udalak epaiketara eramango ditu gaztetxeako kideak, gaztetxera, espazioraindarrez eta baimenik gabe sartu direla argudiatuta. Tokiko erakundeak nabarmendu du espazioak ez dituela erabilia izateko baldintzak betetzen, obretan dagoelako.

**6 gazte identifikatuta**

Gaztetxeako kideek, euren aldetik, salatu dute udaltzainak gaztetxera sartzen saiatu zirela larunbat gauean. Gazte bat identifikatu zuten, gertatzen ari zena grabatzeagatik. Igande goizean itzuli ziren poliziak, eta beste hiru lagun identifikatu zituzten orduan.

Astelehen goizean, aldiz, bi patruila bertaratu ziren Lamuza parkera, gaztetxeako kideak auzolanean ari zirela. Gaztetxearen kanpoko paretan "Gaztetxe" hitza idazten ari zirela atzeman dituzte, eta kide bat indentifikatu dute horregatik. Horrez gain,

beste gazte bati ere eskatu diote NANA, mugikorrarekin grabatzeagatik.

Bi urte zeramatzan Laudioko Gaztetxeak itxita, Kultur Etxeko obrak direla eta. Gaztetxeako kideek salatu dute obra prozesua "etengabe" luzatzen ari dela, eta nabarmendu ez dagoela gaztetxea ixteko argudiorik "espazioaren itxiera agintzen duentxostenean". Gauzakhala, Laudioko gazteei "politika egiteko espazio bat" ukatzen zaiela uste dute. "Udalaren txostenaren helburua 20 urteko ibilbidea bete duen gaztetxea arbitrarioki ixtea da", nabarmendu dute.

# Abeltzainek bertan behera utzi dute Dolumin Barikuko aurtengo azoka, udal hiltegiaren itxiera salatzen

Animaliek ez dute Laudioko herrigunea hartuko, berriro ere. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Laudioko egutegiak bere jai garrantzitsuenetako bat galduko du aurtengoa, berriro ere. Izan ere, Aberedunak elkarteak jakinarazi du uko egin diola aurtengo Dolumin Barikuko azoka antolatzeari. 20 urteko ibilbide hori etengo dute tokiko abeltzainek protesta egiteko eta aldarrikatzeko Laudioko Udal Hiltegiaren itxieraren ondoren, horrelako beste azpiegitura bat ireki behar dela eskualdean. Berez, bertan behera jarraian geratzen den hirugarren edizioa izango da aurtengoa, 2020 eta 2021ekoak ez baitziren egin COVID-19aren eraginez.

Erabaki horrekin, azokaren antolatzaileek elkartasuna adierazi nahi diete mobilizazioetan parte hartu duten Aiaraldeko abeltzain orori. Bide batez, elkarteak adierazi du espero duela protestak balio izatea bidea egiteko eta lehen sektorea bideragarri egingo duten erabakiak ahalbidetzeko.

Berez, urtarrilean ekin zioten Laudioko Udal Hiltegia husteari eta barruan zegoen makineria eraman zuten. Aste berean mobilizaziojendetsua deituzuten Laudion erabakiaren kontra. 2021eko uztailean itxi zuen Laudioko Udalak azpiegitura, kautelazko neurri gisa, baina azkenean behin betikoa bilakatu da erabakia.

**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18  
Karmen Kalea 13, behea  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00  
[www.yandioladental.com](http://www.yandioladental.com)

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIKAK

ANA BEGOÑA  
PALACIOS

PSICÓLOGA

Adimen  
emozionalean  
aditua



685 735 227  
[info@abpalaciospsicologa.com](mailto:info@abpalaciospsicologa.com)  
[www.abpalaciospsicologa.com](http://www.abpalaciospsicologa.com)



# herriz herri

## Urduña

### Hirian gertatutako bortxaketa salatzeke hartu dute berriro plaza



Jende ugari batu zen Urduñako Foru plazan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Otsemeak talde feministak urtarrilean jaso zuen neska batek egindako salaketa 'Entzun gaitzabela' egitasmoaren barruan. Erasotuaren lekukotzaren arabera, gizonen batek bortxatu zuen Urduñan.

Gertakari hori ahaztu ez dadin, elkarretaratzea egin zuten otsailaren 12an 13:00etan Urduñako Foru plazan. Hainbat jende elkartu zen 'Indarkeria matxistarik ez' leloa zuen pankartaren atzean.

Ekitaldia amaitzeko, Ilargiak taldeak abesti feminista sorta jo.

### Hasi dituzte 'Duintasunaren kolunbarioa' eraikitzeke lanak



Hilerriaren aldamenean ari dira lanean. **Urduñako Udala**

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Honezkero abiatu dituzte "Duintasunaren kolunbarioa" eraikitzeke lanak Urduñako hilerrian. Azaroan aurkeztu zuen proiektua udal gobernua:

"gune horretan, hilobitkaterako diren Gerra Zibileko biktimen gorpuak gordeko dira, gerran eta frankismoan bidegabeki hil ziren pertsonak duintzeko helburuarekin". Gogora Institutuik etorritako 80.000 euroko aurrekontua du Udalak.

## Arrankudiaga eta Zollo

### Kanporamartxo eguna ospatu dute Pagobakarran

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Matxinkorta Mendi Taldeak eta Udalak antolatuta, Kanporamartxo eguna ospatu zuten otsailaren 19an. Mendi martxa egin zuten Arrankudiagako plazatik abiatuta, eta Pagobakarran zuhaitzak landatu zituzten partaide guztien artean. Hamarnaka lagun bildu ziren.



Hamarnaka herritar batu ziren ospakizunera. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## Lan eskaintza

### Faktoriako sukaldaria izan nahi duzu?

EKO-  
NO-  
MA-  
TUA

ELIKADURA  
FAK-  
TO-  
RIA

### Sukaldari eta dendari laguntzaile lanpostua

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak Ekonomatu eta kantinarako sukaldaria behar du, dendari-laguntzaile lanak ere egingo dituena. Lanaldia nagusiki asteburuetan gauzatuko da, %75eko lanaldiarekin.



Lan-deialdi honen gainera interesa baduzu, bidali aurkezpen gutuna eta Curriculum Vitae-a [lanpoltsa@aiaraldea.eus](mailto:lanpoltsa@aiaraldea.eus) helbidera otsailaren 25a baino lehen.

Informazio eta baldintza zehatzak hemen



## Orozko

# Aiaraldear ugari batu ziren Madres Mercedariaseko langileen 5. greba egunean



Ibarra auzoan eta eridigunean mobilizatu ziren. Aiaraldea.eus

# “Eraso matistek ez dute tokirik, ez Orozkon ez inon”



Orozkon eta laudioneraso matxista salatzeo eginiko mobilizazioa . Aiaraldea.eus

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Mobilizazio eguna izan otsailaren 11 Orozkon. Madres Mercedariaseko langileek bosgarren (eta, momentuz, azken) greba eguna egin zuten, eta elkarretaratzea egin zuten 14:00etatik 16:00etara egoitzaren aurrean.

Ez ziren bakarrik egon. Aiaraaldeko dozenaka herritar batu ziren deialdira. Bertan egon ziren, besteak beste, Artiacheko, Tubacexeko, Tubos Reunidoseko, erresidentzietako edota Autoglaseko hainbat langile. Laudioiko udal hiltegiaren itxieraren aurka sortutako plataformako edota mugimendu feministako zenbait kide ere bertaratu ziren. Gauzak hala, hainbat

## Artiacheko, Tubacexeko, egoitzetako, Autoglaseko edota Tubos Reunidoseko langileak bertaratu ziren Ibarra auzora

aldarri batu ziren ia 2 ordu iraun zituen protestan.

Ertzaintzaren bi patruila bertaratu dira egoitzara mobilizazioaren azken zatian, baina ez zen aparteko arazorik egon.

16:00etan jaitsi ziren herritar guztiak erdigunera, Madres Mercedariaseko eta Artiacheko grebalariek deitutako mobilizazioan parte hartzeko. Herriguneko kale nagusiak zeharkatu zituzten, eta Zubiaur plazan amaitu zuten ekimena.

Madres Mercedariaseko langileek eskerrak eman zizkieten bertaratu ziren persona guztiei, eta borrokan jarraituko dutela nabarmendu zuten. Salatu zuten, bost greba egunetan ez zute megoitzako zuzendaritzaren deirik jaso.

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Gizonezko batek Orozko zenbait neska gazte jazarri ditu, Matxintxu elkarteak salatu duenez. Orozkon ez ezik, inguruko beste herri batzuetan ere gertatu dira erasoak, Ugaon kasu. Hargatik, elkarretaratzeakegin zitu zenbi herri bizkaitarretan ostiralean.

Izan ere, Orozko neska gazte zein emakume nagusiagoek jazarpena salatuz, gizonezko baten eskutik. Epai bideari, ordea, ezin izan diote heldu; poliziak adierazi dienez, eraso edogertaera fisikorikezean ezin delako ustezko erasotzailearen aurka jo.

Erasoen larritasuna eta jarrera matxistekiko gaitzespena azaleratzeko mobilizazioa egin zuten otsailaren 18an, 20:00etan Zubiaur plazan. Jende lepo bete zen plaza eta elkarretaratzearen bidez emakume erasotuei babesa adierazi eta eraso matxistari onartuko ez dutela berretsi zuten. "Eraso matxistek ez dute tokirik ez Orozkon ez inon", azpimarratu zuten.

Orozko Udalak adierazpen instituzionala plazaratu zuen, gertaeren harira. "Mota honetako erasoak gure gizartean oraindik nagusi diren indarkeria matxistaren eta genero desberdintasuneko jarreraren adierazpenik higuigarrienak dira eta Udalak guztiz gaitzesten ditu. Ezinbestekoa da lanean jarraitzea, gizartea eta herriko giza eragileekin batera, balioetan oinarritutako heziketaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde. Beharrezkoa da, halaber, azpimarratzea horrelako jarrerak eragiten dituzten faktoreetan egunez egun esku hartzen jarraitu behar dela", aipatu dute oharrean.

Laudioko Institutuan, bestalde, astelehen goizean -otsailaren 21ean- egin zuten gertaerak salatzeo elkarretaratzea. "Ozen esan nahi dugu ez dugula honelako jarrerarik onartuko, ez hemen ezta beste inon ere. Gora borroka feminista!" adierazi zuten ikasleek asteleheneko elkarretaratzean irakurritako manifestuan.

# herriz herri

## Aiaraldea

Aiarako Emakumeen Gelan aurkeztu zituzten ibilaldiaren III. edizioaren nondik norakoak. 12 kilometroko luzera izango du eta Amurrio, Luiaondo eta Laudio lotuko ditu. Asteartetik dago irekirik izena emateko epea.

# Berdintasunaren aldeko milaka urrats martxoaren 12an



Laudio, Amurrio, Aiara eta Aiarako Kuadrillako arduradun instituzionalak elkartu ziren aurkezpenean, kirol klubetako kideekin batera. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Martxoaren 13an egingo dute Berdintasunaren Aldeko Martxa Neurtuaren edizio berria, Alzarrate Kirol Elkarteak eta Kaskagorri Futbol Taldeak elkarlanean antolatutakoa. Horrela adierazi zuten otsailaren 18an Aiarako Emakumeen Gelan egindako aurkezpenean.

Bertan egon ziren Gentza Alamillo Aiarako alkatea, Txerra Molinuevo Amurrioko alkatea, Ander Añibarro Laudioko alkatea, Loli Muriel Laudioko berdintasun zinegotzia eta Encina Castresana Aiarako Kuadrillako lehendakaria.

2020an, COVID-19aren pandemiaren eraginez, azken unean bertan behera utzi behar izan zuten III. edizioa, eta hori berreskuratuko dute aurten. Gentza Alamillok martxa

antolatzeko Alzarratek eta Kaskagorri egindako ahalegina goraiatu zuen ostiral goizeko agerraldian.

Bide beretik, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko egitasmoari babesa adierazi zioten Loli Muriel eta Encina Castresanak. Laudio eta Amurrioko alkateek, bestalde, herritar orori luzatu zioten ekimenean parte hartzeko gonbita.

### Martxa neurtua

Amurrioko Juan de Urrutia plazatik zein Laudioko Herriko Plazatik abiatuko da martxa, 10:00etan. Bi ibilbideek Nerbioiko ibaiaren ertza jarraituko dute eta Luiaondo izango dute geraleku. Aurtengo edizioan, osasun egoerak baldintzatuta, jende pilaketak saihestuko dituzte Luiaondon atonduko duten postuan.

## Aiarako Emakumeen Gelan aurkeztu zituzten ibilaldiaren III. edizioaren nondik norakoak

Martxak 12 kilometroko luzera izango du, eta ibilbidea laua eta erreza dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Alzarrate eta Kaskagorriko kideak arduratuko dira parte hartzaileen denborak kontrolatzeaz irteera eta helmuga postuetan. "Ez du lehenengoak irabaziko, ezta azkenak ere. Erabilitako denbora neurtuko da eta tarteko denborek jasoko dituzte opariak", azaldu dute antolakuntzako kideek. Sarien banaketa hori Arespalditzako Emakumeen Gelan egingo dute, denbora guztiak egiaztatu eta tarteko denborak kalkulatu ostean.

### Izen-ematea

Izen-emate epea otsailaren 22an zabalduko zuten, eta martxoaren 10ean itxiko dute. Inskripzio orria Aiarako Udalean eta Alzarrate eta

Kaskagorri taldeen bulegoetan egongo da eskuragarri. Laudio Alzarrateko kideak eta herri-laguntzaileak udaletxe sarreran egongo dira astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara.

Amurrión, aldiz, Kaskagorri elkarte Kultura Etxean egongo da izen emateak jasotzen, astelehenean ostegunera 17:00etatik 19:00etara, eta ostiraletan 11:00etatik 13:00etara.

Izen emateak 5 euroko kostua izango du, eta 2020an ordaindu zuten parte hartzaileek ez dute berriro egin behar. Eraberean, bertan behera geratu zen edizio hartako kamisetak zutenek ez dute kamiseta berririk eskatu behar.

Lehenengo edizioan 400 lagun elkartu zituen martxak, eta 2019an ia mila izan ziren bertaratutakoak. Aurten ere, parte-hartzaile kopuruak gora egitea espero dute antolatzaileek.

## Aiaraldea

## Murgako urarekin Laudioko beharrak asetzeko prozesua abian

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Murgako ur biltegiaren aprobetxamendurako proiektua kontratatzeke prozedura abiatu du Arabako Foru Aldundiak. 627.525,3 euro baliatuko ditu horretarako eta kontratatuko duten enpresak 9 hilabete izango ditu lanak amaitzeko, behin esleipena eginda.

Honako helburua izango dute obrek: Laudioko hainbat zonaldeko ur-horniduraren gabezia konpontzea. Aldundiak azaldu duenez, Murgako biltegiak 2.500 metro kubiko ditu, eta gaur egun ez da bertan

dagoen ur guztia erabiltzen. Horregatik erabaki dute biltegia Laudioko hoditegira konektatzeko obra egitea, bertako ura Aiaraldeko udalerriri handienera ere ustiatu ahal izateko. Izoriako araztegitik igaroko da korrantea, tratatutako ur bihurtzeko. Gauzak hala, hemendikurrera Laudiozein Luiaondo hornituko dira araztegi horretako urarekin.

Orain arte, Ugarte eta San Bartolome auzoetako biltegien bidez burutu da Laudioko ur-hornidura, baina bi toki horiek txiki geratu dira udalerriko beharrak asetzeko orduan.

## Saharako Errepublikaren aldeko ekitaldia egin du Etawasolek



Jendetza elkartu zen Faktorian. Aiaraldea.eus

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Otsailaren 28an da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren urtemuga. Hargatik, urtero biltzen da saharar komunitatea, euren herrialdearen egoera azaleratu eta urteurrena ospatzeko. Ohikoan, Laudioko plaza hartu izan

dute, baina aurten Faktoriara mugitu dute ekitaldia. Hala, goizean goizetik hainbat belaunaldietako kideak batu ziren Faktorian. Ekitaldian aldarrikapenak, dantzak eta elkartzun mezuak izan ziren nagusi.

Faktoriak, bere aldetik, euskara-arabiera hiztegia banatu zien bertaratutakoei, euskararen espazioa zein hizkuntza gerturatzeko asmoz.

## Doako wifia jarriko dute Izoria, Okondo eta Artziniegan

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

'Araba Smart Lurraldea' plana abiatu du Arabako Foru Aldundiak. Plan horren bidez, doako wifia jarriko du erakundeak lurraldeko 15 herritan, bi urtez.

Aldundia Aiarako Kuadrillarekin jarri zen harremanetan proiektua eskualdeko zein herritan aplikatu zitekeen jakiteko. Azterketa bat egin ostean, Aiaraldeko hiru herri hautatu zituzten: Izoria, Aiara eta

Okondo. "Lehenak 250 biztanle baino gutxiago ditu, eta beste bi udalerriek 5.000 baino gutxiago", azaldu du Encina Castresana Kuadrillako presidentek. Herri horietako etxeen sakabanaketa hartu dute aintzat, Internet konexio zailtasunak dituzten zonaldeei zerbitzua eskaintzea delako ekimenaren xedea. Instalazioa jartzearen eta konexioaren gastua Arabako Foru Aldundiak hartuko du bere gain, baina gauza bat eskatu die erakundeak udalei:

puntuak jartzeko tokiak lagatzea. Artziniegan udaletxea hautatu dute wifi puntua jartzeko. Modu horretan, Interneterako konexioa eskaini nahi diete eraikinaren atzeko aldean dagoen Garai plazan elkartzen diren familiei.

Izorian Administrazio Batzarraren egoitzan jarriko dute wifia. Okondon, aldiz, eskolan atonduko dute konexio-gunea, bertan zein alboan dagoen parkean biltzen diren familiek erabili ahal izateko.

Gustoko

Kalitatea  
eta jatorria

22/3/4-6

Zaporeak, sentsazioak eta produktu berriak.  
Zatoz BEC-era!

[www.gustoko.eu](http://www.gustoko.eu)

Kolaboratzaile nagusiak:

Bilbao Bizkaia Euzko Inularratza Gobierno Vasco

Antolatzailea:  
Bilbao Exhibition Centre

EXPOSSIBLE!

# elkarrizketa

**“Kaleratzeari esker ez naiz gehiago pertsona nagusiekiko praxi-txar horren parte izango”**



**PAQUI BELDA GAJDOS** (Herbehereak, 1965)

ARTZINIEGAKO LA ENCINA EGOITZAN SEI URTEZ LAN EGIN OSTEAN APIRILEAN KALERATU ZUTEN. ORAIN, EPAILE BATEK BIDEGABEA IZENDATU DU KALERATZEA. ERRESIDENTZIA PRIBATUETAKO ERREALITATEAZ MINTZATU DA.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Artziniegako La Encina egoitza kaleratua izan zinen iaz, azalduko diguzu nolako izan zen prozesua?**

Egun batetik bestera, 2020ko irailean, enpresak gaueko txanda ezarri zigun; txanda hori egiteaz arduratzen zen gure lankideak gogaituta alde egin zuen, zuzendaritzari egindako laguntza eskaerak ez zutelako inolako erantzunik jaso.

Langileok proposamena luzatu genion zuzendaritzari: gaueko txanda egiteko prestutasuna zuten beharginekin lan talde finko bat osatzea, eta gainerakoak errotatzen joango ginen. Ez zuten proposamena onartu, eta erabakiarekin ados ez bageunden gure artean elkartu eta hori borrokatzeko erronka bota zigun arduradunak mespretxuz.

Urriaren ELA sindikatuan afiliatu nintzen, eta egoera bideratzeko laguntza eskatu nuen. Une horretan hasi zen jazarpen sindikala. Arduradunak hilabete horretan bertan bulegora deitu eta nire lana modu egokian ez egitea leporatu zidan lehendabizikoz. Orduetik aurrera etengabea izan zen nire eta beste lankideen aurkako jarraipena.

Hauteskunde sindikalak egin genituen abenduan, eta enpresa are oldarkorrago azaldu zen. Lankideen artean beldurra eragiten hasi ziren arduradunak. Zuzendaritzak uko egin zion gurekin lan egutegia negoziatzeari.

Urtarrilean baja hartu behar izan nuen enpresaren arduragabekeria baten ondorioz izan nuen eroriko bat zela eta. Bi hilabetez egon nintzen etxean, tartean, gainera, COVID-19az kutsatu nintzen. Enpresak uneoro zalantzan jarri zuen nire baja, eta gerora behar izan nuen erreabilitazioa.

Martxoan bueltatu nintzen lanera. Jazarpen-egoerak berdin jarraitu zuen. Apirilean gutun bat jaso nuen; hainbat lankide nire jarrerarekin kezu ziren, antza. Akusazio zeharo faltsuak ziren. Sindikatuak arrazoibide bat prestatu zuen enpresari azalpenak eskatzeko. Ez ginen dokumentua aurkeztera iritsi: enpresak legean jasotako 10 egunak errespetatu gabe kaleratze gutuna entregatu zidan.

**Nola gogoratzen duzu une hori?**

Kaleratze gutunak birrindu egin ninduen, sekula ez nintzen hain iraindua sentitu. Egoitzako zuzendariak faboreak oso azkar ahazten nituela bota zidan mespretxuz. La Encinan lanean

hasi nintzen egunari egiten zion erreferentzia: inkorporatu behar nintzen egunean urgentziak alde egin behar izan nuen nire aita hiltzear baitzegoen. Arduradunak azaldu nien ezingo nintzela lanera joan eta beste norbait kontratatuzko; hauek ezetz esan zidaten, ni itzuli arte itzarongo zutela. 'Fabore' horri egiten zion erreferentzia, zeharo bidegabea zen.

Amorrotuta nengoen. 'Ez konforme' sinatu nuen eta ospa egin nuen bertatik. Lankideak eta erabiltzaileak agurtu nituen. Ez nuen negar malko bakar bat ere egoitzabaruan isuri nahi; ordurako hasiak ginen mobilizazioak egiten, eta egoitza aurrean zeuden nire kideekin eta senideekin batzea besterik ez nuen nahi. Alaba negarrezikustea izan zen gogorrena, baina oso babestua sentitu nintzen; ezagutzen ez ninduen jendeak ere erakutsi zidan babesia.

**Ez zinen kaleratutako langile bakarra izan.**

Ez, martxoan beste lankide bat kaleratu zuten. Bere egun librean egoitzara joanarazi zuten, eta une horretan eman zioten kaleratze gutuna. Finikitorik ere ez zuen jaso.

Egoera guzti hori sindikatuan antolatu eta mugitzen hasi ginelako eragin zuen enpresak, gure eskubideak aldarrikatzen hasi ginelako.

**Kaleratzearen aurkako salaketa jarri zenuen orduan; prozedura judiziala ia urtebetez luzatu da.**

Sindikatuako zerbitzu juridikoek kaleratze baliogabea lortzea zuten helburu, nire kaleratzea jazarpen sindikalaren ondorio zela argudiatuta. Nik, ordea, zalantzak nituen; kaleratzea baliogabetzeak La Encinara lanera bueltatzea suposatuko luke, eta nik ez nuen hori nahi, inondik inora. Bigarren iritzi bat eskatu nion beste abokatu bati, argi azaldu zidan oso erraz izendatuko lukeela epaile batek nire kaleratzea bidegabe; kaleratzea baliogabetzea, aldiz, zailagoa izango zen jazarpen sindikala egon zela argudiatzeko frogas asko aurkeztu behar baitziren.

Gauzak horrela, kaleratze bidegabearen alde jo nuen. ELAko abokatuek eraman dute auzia. Nik ez dut hauen berririk izan epaiketa baino bi aste lehenagora arte.

Beldur handia izan dut azken hilabeteetan, ziurgabetasuna izugarria izan da. Askotan pentsatzen nuen La Encinako arduradunak berriro kontratatuko nindutela ni izorratzeko helburu bakarrarekin. Gai ikusten nituen niri min hori egiteko. Beldur horrek

## elkarrizketa

asko baldintzatu dit bizitza. Otsailaren lehen zegoen jarritako epaiketaren data. Abokatuak azaldu zidan kaleratze gutuna ez zegoela nondik hartu, enpresak ez baitzuen niri leporatutakoak frogatzeko datu bakar bat ere eskaini, eta erraz irabaziko genuela epaiketa. Epaiketaren data baino egun batzuk lehenago enpresako abokatuak ELAkoekin jarri zen harremanetan eta akordioa sinatu zuten. Kaleratzea bidegabea izendatu dute, kalteordaina jaso dut eta ez dut berriro La Encinan lanik egingo; hilabete oso gogorren ostean atsedean hartzea lortu dut.

Nire lanpostua oso garrantzitsua zen niretzat, baina denak ez du balio; nire eskubideak eta duintasuna errespetatuak izatea nahi dut.

### Babestua sentitu zara denbora guzti honetan?

Ez naiz esateaz nekatuko, oso babestuta eta zaindua sentitu naiz, eta horri esker egin diet aurre hain hilabete ilunei.

Oso eskertua nago nire lanbideekin, mugimendu feministarekin, Greba Batzordearekin... Zerrenda amaigabea da: BMko langileak, Tubacexekoak, Mercedariak, Artiachekoak... Ezagutzen ez ninduten eta une oro laguntzeko prest egon diren jendez inguruatuta egotea zoragarria izan da. Aurrerantzean ere nire ekarpena egiten jarraitu nahi dut.

### Nola ikusten duzu zure lan-etorkizuna orain?

Lan berri bat hasi dut. Sektorean

**“Nire lanpostua oso garrantzitsua zen niretzat, baina denak ez du balio; nire eskubideak eta duintasuna errespetatuak izatea nahi dut”**

jarraituko dut beharrez, gogoko dudalako eta uste dudalako gure lana oso garrantzitsua dela pertsona nagusien bizi kalitatea hobetze aldera. Hori bai, ez daukat erresidentzia pribatu batera bueltatzeko inolako asmorik, ikasi dut ikasgaia.

### Zein da erresidentzia pribatuaren atzean dagoen errealitatea?

Nire iritziz, erresidentzia pribatuak dirua egiteko makinak dira. Dependentsia duten pertsona nagusiak beti egongo dira, zaharkitutako gizartea da gurea, negozio borobila da beraz. Bai noski, negozio honetan lehengaiak ez dira patatak, ezta tutuak ere, arreta duina merezi duten pertsonak dira.

Erresidentziak etxeko bizitzaren luzapena izan beharko luke, egunerokoa zertxobait arautuagoa duena, baina etxe bat, funtsean. Sentazioa oso bestelakoa da, ordea, muntaketa-kate bat da: agureak esnatu, garbitu, goslatzen eman... Ez dago euren beharrei erantzuteko astirik, emozionalki eurak artatzeko. Langile erratioak errespetatzen ez direlako gertatzen da hori. Langileak falta dira, eta, ondorioz, lan karga izugarria da; denbora aurreztu behar da eta hori egiteko modu bakarra erabiltzaileen arretatik aurreztea da.

15 minutu ditugu erabiltzaile bakoitza esnatu, garbitu eta janzteko. Horrekin batera logela pixka bat atondu eta ohea egin behar dugu. Ohea egitea izarak ondo jartzea izan daiteke, edo hauek guztiz aldatzea. Hori 15

**“Ez naiz esateaz nekatuko; oso babestuta eta zaindua sentitu naiz, eta horri esker egin diet aurre hain hilabete ilunei”**

minutuan egitea mugitzeko gaiatsunik ez duen pertsona batekin ezinezkoa da. Ez da normala bi langile egotea 24 agure altxatzeko.

Ez dago erabiltzaileekin interakzionatzeko unerik, garbitzera eta jaten ematera mugatzen gara. Oso bidegabea da. Kaleratzeari eskertu behar diot pertsona nagusiekiko praxi-tzar horren parte gehiago ezizatea.

Nik sinistu egiten dut erresidentzietan, beharrezkoak direla uste dut, baina gauza asko aldatu behar dira. Nik ez dut nire amarentzako La Encinan ezagutu dudana nahi. Erresidentzietan dauden pertsonak bizitza guztia borrokatu diren pertsonak dira, gure eskubideen alde egin dutenak, tartu duina merezi dute bizitzaren azken urteetan.

### Uste duzu erresidentzietako langileen lana aitortu egiten dela?

Funtsezko sektorea gara, baina gure lana ez dago aitortua, eta askotan ezkutatu egin izan da. Pandemiak egora lehertu du, aspalditik zen jasanezina bertako egoera, eta gabezia guztiak atera dira argitara.

La Encinako arduradunek ez dute inoiz aitortu gure lana. Uste dut ez direla erresidentzia bat kudeatzeko pertsona aproposak. Agureei atzazkalak moztzen nengoen behin egongelan, esan zidaten hori ez zela lan egitea. Argi dago ez dutela ezer ulertzen pertsona nagusien beharrez inguruan. Beraientzat erresidentzia dirua egiteko makina bat baino ez da.





## Mozorroak prestatu eta inauteri jaietan *murgiltzeko unea iritsi da*

Mozorro eta kalejirek Aiaraldeko udalerrietako kaleak hartu dituzte otsaileko azken asteburuan. Pandemiaren eraginez ia bertan behera geratu ziren ospakizunak berreskuratuko dituzte aurrerantzat. Kalejirek hartuko dute protagonismo nagusia, baina bestelako ekintza ugari ere prestatu dituzte Aiaraldeko udal eta eragile kulturalak: musika emanaldiak, mozorro lehiaketak edota irudimena dantzan jartzeko hamaika tailer.

Urduñan otsailaren 26a izango da egun handia: Orkresta elektrotxarangak hiriko kaleak girtuko ditu 13:00etatik aurrera, eta 18:30ean aratuzte desfilea egingo dute Urduñako Herri Eskolako patioan.

Amurrión, 'Kakarro Birigarró' mozorro lehiaketan eta desfilea izango da inauterietako egitaraua-

ren protagonista. Otsailaren 26an ospatuko dute lehiaketa, 19:00etan. Martxoaren 1ean ere hainbat jarduerak egingo dituzte, kasu honetan San Anton Plaza estalian, 16:45etatik aurrera, eta Kakarro Judasen erreketak itxiera emango die inauteri ospakizunei.

Artziniégan ere mozorroen kalejira eta lehiaketa antolatuko ditu Udalak. Desfilea otsailaren 26an abiatuko da, arratsaldeko 19:30ean, Toñin Luenagaz frontoitik eta herriko kaleak zeharkatuko ditu.

Laudioioko inauterietako osagai nagusi den Lezeagako sorginak agerpena egingo du aurretik berriro ere. Laudioioko Udalak egitaraua prestatu du otsailaren 26rako eta martxoaren 1erako. Larumbatean Lezeagako Sorginak gidatuko duen desfilea 18:30ean abiatuko da, Ugarte auzotik. Astearrean,

berri, Lezeagako sorginak maltzurkeria erreko du Herriko Plazan egingo den ekitaldian. Aurretik Ciurcus Show ikuskizuna eskainiko dute Herriko plazan.

Laudion ere, herriko eragile eta bizilagun talde batak Laudioioko Herri Aratuztearen egitaraua antolatu du. Egitarauaren gehiengoa otsailaren 26an bilduko dute. Goizean tostadak egiten ikasteko sukaldaritza tailerra egingo dute Faktorian, 11:00etatik aurrera. Eguerdian, aldiz, herrigunera mugituko dituzte ekintzak; 'Aratuzte Irratia' piztu eta zuzeneko emisioa eskainiko dute Aldai Plazan, kareta banatu eta argazki erakusketak atontzeaz gain. Arratsaldean, kalejira nagusira batuko da herri aratuztearen blokea. Orozkon, Aiaran eta Okondon ere prestatu dute egitaraua inauteri asteburua girotzeko.

### MUSIKA

**02.25 Ostrala**  
22:30 AMURRIO  
**SEDA ETA SONIC TRASH**  
Burubio Elkarte

**02.26 Larumbata**  
17:00 BARANBIO  
**IRRITA HEGEN Y SUS CIRCUSTANCIAS ETA ETNIA**  
Garrastatxuko Txosna

**02.26 Larumbata**  
20:30 LAUDIO  
**ANIMALIA BITXIAK I JAIALDIA**  
Balmog, Hipoxia, Ballard eta The Covenant Orbeiko Etxea

**02.26 Larumbata**  
21:00 LAUDIO  
**BLANCO Y EN BOLSA, MUNDO RATA ETA ZUTIK**  
Drumgorri aretoa

**02.26 Larumbata**  
22:00 AMURRIO  
**MOSH, IZATE FALTSUA ETA NUKORE**  
Burubio elkarte

**02.27 Igandea**  
19:00 LAUDIO  
**LAUDIOKO MUSIKA BANDA STRICKES BACK**  
San Pedro eliza

**03.04 Ostrala**  
22:00 AMURRIO  
**SU TA GAR**  
Burubio elkarte

INAUTERIAK AIARALDEAN

**02.25 Ostrala**  
17:00 OROZKO  
**INAUTERI EGUNEKO TAILERRAK**  
Zubiaur Plaza

**02.25 Ostrala**  
17:30 OROZKO  
**MOMOTXORRO KALEJIRA LAUDIOKO Herri Aratuzteak**  
Zubiaur Plaza

**02.25 Ostrala**  
17:30 URDUÑA  
**MASKARA ETA MAKILLAJE TAILERRA 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzat**  
Alondegia

**02.25 Ostrala**  
18:30 OROZKO

**02.27 Igandea**  
12:00 URDUÑA  
**SANTA ZEZILIA ETA BIHOTZA KONPARTSAREN KALEJIRA**  
Herrian zehar

**02.27 Igandea**  
13:00 URDUÑA  
**DANTZA POTEOA**  
Erautsi dantza taldearen eskutik  
Herrian zehar

**02.27 Igandea**  
17:00 OKONDO  
**TRANPANTOJO TAILERRA**  
Kultur Etxea

**02.27 Igandea**  
17:00 AIARA  
**INAUTERITAKO OGI TXIGORTUAK EGITEKO TAILERRA**  
Izoriako txokoa

**02.28 Astelehena**  
17:00 AIARA  
**UMEENTZAKO INAUTERI TAILERRA**  
Kili-kili elkarrekin antolatuta  
Aiarako Udala

**02.28 Astelehena**  
17:00 AIARA  
**GORE MAKILLAJE TAILERRA**  
Luiadoko ludoteka

**03.01 Asteartea**  
17:00 URDUÑA  
**IPUIN KONTALARIA: 'BAZEN BEHIN'**  
Liburutegia

**03.01 Asteartea**  
17:30 LAUDIO  
**KANTU ESKEA ETA ASKARIA**  
Laudioioko herri Aratuzteak  
Ugarte auzoa

**03.01 Asteartea**  
17:45 LAUDIO  
**'CIRUCS SHOW' ETA LEZEAGAKO SORGINA**  
Laudioioko herri Aratuzteak  
Herriko Plaza

**03.01 Asteartea**  
18:30 AMURRIO  
**KAKARO BIRIGARRORREN ERREKETA**  
San Anton plaza

IKASTAROAK

**02.23 Asteazkena**  
11:00 LAUDIO  
**ANDROID GAILUAK ERABILTZeko IAKSTAROEA**  
izen ematea: 945062501  
KZ Gunea



# Irrien Lagunak

## Bañuetan



Kui-kui ikuskizuna taularatuko dute Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek Amurrioko Bañueta kiroldegian, martxoaren 4an. "Emanaldi bakoitzean 1.500 lagunek ziangoko dute ikusteko aukera", zehaztu dute. Izan ere, bi saio eskainiko dituzte: 17:30ean eta 19:30ean. Azaroaren 28an egitekoak ziren ikuskizuna kiroldegian, baina bertan behera utzi zuten.

# Su Ta Gar taldeak

## elkartasunez saltoka jarriko du Amurrioko Burubio Aretoa



Elkartasun doinuek Burubio Kultur Elkar-tea hartuko dute datorren martxoaren 4an; ANkerkeriari STOP plataformak kontzertuak antolatu ditu Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako prozedura judizialak eragindako kostu ekonomikoetara aurre egiteko. Azken hilabeteetan antzeko jaialdiak egin dituzte Gasteizen eta Agurainen.

Martxoaren 4an, norik eta Su Ta Gar metal talde ezagunak jarriko dio musika eta ahot-sa bi gazteen aldeko elkartasun ekimenari.

Sarrerak otsailaren 27an jarriko dituzte salgai. Amurrioko Txokogorri tabernan, goizeko 11:00etatik aurrera. Hori zango dasarretarak eskuratzeko toki bakarra.

### Ekimen gehiago

Barbado eta Zelaia ren aldeko ekimenekin jarraituz, plataformak pilota partidak antolatuko ditu ere martxoaren 5ean, larunbata, Amurrioko Frontoian. Zenbait pilotari profesional arituko dira bertan.

# Kartelera



LAUDIOALDE  
ARETOA

**No way home**

**OTSAILAK 26**  
LARUNBATA (3 euro)

18:30



LAUDIOALDE  
ARETOA

**Ilargirantz**

**OTSAILAK 27**

IGANDEA (3 euro)

17:30



DONIBANE  
ARETOA

**Belfast**

**OTSAILAK 27**

IGANDEA  
(3,5/4,5 euro)

19:00



URDUÑAKO  
LIBURUTEGIA

**Onward**

**MARTXOAK 1**

ASTELEHENA  
(Doan)

17:00

**OROZKO TALENT**  
Orozkoko Inauterien barruan  
Frontoia

**02.26 Larumbata**  
10:00 URDUÑA

**SHANAAN TAILERRA**  
Joko ez lehiakorren tailerra  
Herri Eskola

**02.26 Larumbata**  
11:00 LAUDIO

**TOSTADA TAILERRA**  
Laudioko Herri Aratusteak  
Faktoria

**02.26 Larumbata**  
12:30 LAUDIO

**ARATUSTE IRRATIA**  
Laudioko Herri Aratusteak  
Aldai Plaza

**02.26 Larumbata**  
13:00 URDUÑA

**KALEJIRA: ORKRESTA  
ELEKTROTARANGA**  
Herrian zehar

**02.26 Larumbata**  
17:00 AMURRIO

**TXARANGA KALEAN**  
Herrian zehar

**02.26 Larumbata**  
17:00 OKONDO

**TOR MAGOA**  
Kultur Etxea

**02.26 Larumbata**  
18:30 LAUDIO

**MOZORRO DESFILEA**  
Lezeaga kaletik

**02.26 Larumbata**  
18:30 URDUÑA

**MOZORRO DESFILEA**  
Herri Eskolatik

**02.26 Larumbata**  
19:00 AMURRIO

**'KAKARRO BIRIGARRO'  
MOZORRO LEHIAKETA**  
Santa Maria elizatik

**02.26 Larumbata**  
19:00 URDUÑA

**DJ PACO ETA DJ VARRO**  
Diskofesta  
Foru Plaza

**02.26 Larumbata**  
19:30 ARTZINIEGA

**MOZORRO DESFILEA**  
Toñin Luengas frontoia

**02.26 Larumbata**  
20:00 AMURRIO

**BOMBO FESTA**  
Diskofesta  
Juan de Urrutia palza

**02.23 Asteazkena**  
12:00 URDUÑA

**MEMORIA TAILERRA**  
Mugi zaitez! programaren  
barruan  
Erretiratuen egoitza

**02.23 Asteazkena**  
17:00 AMURRIO

**'CERTAIN WOMEN: VIDAS DE  
MUJER'**  
Nagusien kontseiluak  
antolatutako zineforuma  
Nagusi Etxea

**03.04 Ostirala**  
18:00 AIARA

**DROGAK: HEMEN ETA ORAIN**  
Hitzaldi praktikoa  
Ertzaintzarekin  
Ortueta Gizarte Etxea

## KIROL JARDUERAK

**02.26 Larumbata**  
08:00 LAUDIO

**ESKOLA KIROLA:  
TOLOGORRIRA TXANGOIA**  
Goikogane Mendi Taldeak  
antolatuta  
Laudio Instituta

**02.26 Larumbata**  
18:00 AIARA

**UDABERRIKO BOLO  
TXAPELKETA**  
Kexaako bolatokia

**03.05 Larumbata**  
18:00 AIARA

**AIARA FIGHTERS**  
Tokiko eta inguruko  
borrokalarien ekitaldia.  
Bañueta kiroldegia

## FAMILIA JARDUERAK

**02.23 Asteazkena**  
17:30 ARTZINIEGA

**IPUIN TXIKIAK: 'BANAKETA  
ETA TORNEOAK'**  
Liburutegia

**03.04 Ostirala**  
17:30 AMURRIO

**PIRRITX, PORROTX ETA  
MARIMOTOS**  
Bañueta kiroldegia

INFO +

aiaraldea.eus

# erreportajea

Ramon Lazaro Martinez enpresak beharginen kontratuak faltsutu eta lan baldintzak okertu zituen, Udalak zein langileek salatutakoaren arabera. Enpresariak, bere aldetik, bere aurkako akusazioak ukatu ditu.

## Ellakuriko udal igerilekuetako kudeatzailea, auzitara



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Gorabeheratsua izan zen iazko uda Ellakuriko udal igerilekuetan. Laudioko Udalak Ramon Lazaro Martinez enpresariari esleitu zion azpiegituren kudeaketa, bi urterako. "Bigarren geratu zen lehiaketan, baina eskaintza merkeena aurkeztu zuen enpresak atzera egin zuen esleipena baino lehen", azaldu diote udal teknikariek Aiaraldea Komunikabideari.

Baina, laster hasi ziren arazoak. Zerbitzuari lotutako gabeziak sumatu zituzten lehenbizi, baina gauza larriagoekin egin zuten topo bainu-denboraldia amaitu zenean. Une honetan epaitegietan dago auzia. Udalak salaketa jarri dio enpresari, kontratuak faltsutzea egotzita. Era berean, espediente administratiboa abiatu du kontratua bertan behera uzteko, zerbitzuan egondako irregulartasunak medio.

Langileek ere abiatu dute prozedura judiciala Ramon Lazaro Martinezen aurka, lan baldintzak urratu direla argudiatuta.

### Gabeziak zerbitzuetan

Zerbitzuan egondako gabeziak izan ziren Udalak sumatu zituen lehenak. "Belarra hiru aldiz moztu behar zen hilean, eta ez zen betetzen, beste gauza batzuen artean". Gauzak hala, enpresariarekin bildu zen Udala. "Dena konponduko zela esan zigun, baina ez zen hala izan". Zerbitzuaren gaineko kexa ugari jaso zituen tokiko erakundeak udan.

### Kontratuak eta lan baldintzak

Baina gauza larriak, esan bezala, uda amaieran atera ziren argitara, igerilekuetako langileak Udalarekin bildu zirenean. Hor konturatu ziren kontratuekin gertatutakoaz, besteak beste. "Enpresak 13 langile kontratatu behar zituen jardun osoz,

kontratazio pleguetan jasotzen zenaren arabera", azaldu dute udal teknikariek, "baina, hori egin ordez, %50-60 arteko jardunaldi partzialetan kontratatu zituen, guri emandako kontratuak jardun osokoak ziren arren".

Langileetako batek xehetasun gehiago eman dizkio Aiaraldea Komunikabideari: "Udalak duen kontratuan nire izena agertzen da idatzita, baina ez nuen nik idatzi, ez zen nire letra". Gauza larri gehiago jarri dituzte mahai gainean beharginek. Zegokiena baino gutxiago kobratu dutela salatu dute, besteak beste. Era berean, langile batzuk kontraturik ez zutela nabarmendu dute, beste hainbat irregulartasunekin batera.

### Presentzia handia

Bi enpresa ditu Ramon Lazaro Martinezek, Librebor atarian plazaratutako datuen arabera. Lehena 2012. urtean sortu zuen: Gestion Y Eventos Lazaro SL. Udalekin, instituzio publiko eta pribatuekin eta elkarteekin egiten duen enpresa horrek, bere webgunean zehazten denaren arabera.

Lazaro Martinezek berak komunikabide batean azaldu zuen Estatu Espainiarreko 12 pronbintzietan dutela presentzia: Hego Euskal Herria, Kantabrian, Leonen, Errioxan, Salamancan, Segovian, Valladoliden, Sorian, Geronan, Leridan, Tarragonan, Bartzelonan, Murtzian, Valentzian, Zaragozan, Huescan, Teruelen eta Madrilen. Modu horretan (Lazaro Martinezen hitzetan betiere) "900 lanpostu" sortu dituzte, "modu zuzenean zein zeharka".

2018. urtean sortu zuen Corellako enpresariak bere bigarren konpainia: Ramon Lazaro Martinez enpresahorrek aurkeztu zen Laudioko udal igerilekuetako lehiaketa publikora. Hala ere, udal teknikariek zehaztu dutenez, 'Gestion Y Eventos Lazaro' izena "marka" moduan baliatzen du enpresariak.



Iazko udan ekin zion enpresak Ellakuriko igerilekuak kudeatzeari. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

### "Udalak duen kontratuan nire izena agertzen da idatzita, baina ez nuen nik idatzi, ez zen nire letra"

Artziniegako igerilekuak ere kudeatzen ditu Lazarok. Bertan ere nabaritu dituzte gabeziak zerbitzuari dagokionez, baina ez dute langileen eskubideen urraketan berrikerik izan, Joseba Vivancok Aiaraldea Komunikabideari jakinarazi dionez. "Gabezia txikiak ziren, ekintzen antolaketa edota iragarpenari lotutakoak", azaldu du alkateak, "irailean bildu ginen Lazarorekin gairaz hitz egiteko, eta orain, martxoan, berriz bilduko gara, aurtengoudari buruz mintzatzeko".

Dena den, Laudioko langileek salatutakoa ez da salbuespena. Villafrancako (Nafarroa) igerilekuetako bi sorosle kaleratu zituen enpresak 2020an, hauek hitzarmenaren arabera soldata eskatu zutenean. CNT sindikatuak salatu zuen gertatutakoa eta nabarmendu zuen horrelako praktikak "ohikoak" direla enpresaren partetik.

Horrez gain, Interneten ere erraz topatu daitezke enpresariaren

irregulartasunak salatzen dituzten iruzkinak.

### Enpresariaren erantzuna

Aiaraldea Komunikabidea harremanetan jarri da Ramon Lazaro Martinezekin. Bere hitzetan, Udalak esandakoa ez da egia. "Egia da arazo batzuk egon zirela udan zehar, baina konpondu egin ziren eta ez genion zerbitzua emateari utzi". Lan-baldintzen inguruan galdetuta, enpresariak aipatu du Lan Ikuskaritza irailean joan zela igerilekuetara eta ez zuela irregulartasunik topatu. Langileek abiatutako prozedura judicialaren inguruan, aldiz, enpresariak ziurtatu du ez dakiela ezertxo ere ez.

Kontrakoa diote langileek: "Adiskidetzeko-ekitaldia izan genuen eta ez zen agertu". Udal teknikariek, euren aldetik, azaldu dute lan ikuskaritzak gauza bakarra begiratu zuela, ea langileak aldizkako lan-kontratu finkoa zuten, "ez zuen gauza gehiagorik begiratu".

# “Beldur gara Laudioko udako igerilekuetan gertatutakoa berriz errepikatuko ote den”

**AINZANE CUADRA MARIGORTA** (Amurrio, 1994) eta **JOSUNE CUADRA LARRAKOETXEA** (Laudio, 1998) ELLAKURIKO UDAL IGERILEKUETAN EGON ZIREN LANEAN IAZKO UDAN. ENPRESA KUDEATZAILEAK EGINIKO IRREGULARTASUN ETA LAN ESKUBIDEEN URRAKETAK SALATU DITUZTE.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

**Ramon Lazaro Martinez enpresa ere iazko udan hasi zen igerilekuak kudeatzen, bi urteko esleipena lortuta. Noiz hasi zineten ikusten gauzak ez zihoazela ondo?**

*Josune Cuadra Larrakoetxea:* Hasieratik. 20 egungeneramatzen lanean eta kontratuak oraindik ez ziren iritsi. Nominak ere berandu ordaintzen zizkigun, eta pixkanaka-pixkana beste hainbat gauza azaleratzen joan ziren.

*Ainzane Cuadra Marigorta:* Nik igande batean jakin izan nuen biharamunean lanean hasi behar nuela. Gaueko hamarretan bidali zidan kontratua.

**Zein beste irregulartasun sumatu zenituzten?**

*J.C.L.:* Larrienak mantentze-lanetako langilearekin gertatutakoak izan ziren. Epaketan murgilduta daude une honetan. Garbiketako langileekin ere egon ziren irregulartasunak. Kontratuak ez zituzten inoiz fisikoki eduki. Eurekin hitz egitean konturatu ginen lan hitzarmenean zehaztutakoa baino askoz gutxiago kobratzen zutela.

Gainera, mantentze lanetako langileak eta garbitzaileak ez zuten oporrik, egun guztietan lan egin behar zuten, igandetik igandera. Atsedean egunen bat hartu zezaketen, baina oso oso noizbehinka. Behargin horiek guztiak migranteak ziren, eta enpresak horrekin jokatu zuten, nire ustez.

Horrez gain, bero handia egiten duen egunetan Udala derrigortuta dago sorosle bat gehiago jartzera. Batzuetan Artziniegako igerilekuetatik etortzen zen soroslea eta beste batzuetan ez zen etortzen, behar beharrezkoa izan arren.

Beheko aldean bi igerileku

daude, eta jende asko baldin badago pertsona bakarrak ezin du dena kontrolatu, zoramena da. Artziniegako sorosleekin hitz eginda konturatu ginen euretako batzuei “praktiketan” egongo balira bezala ordaintzen zirela. Beste kasu batzuetan kanpoko jendea ekartzen zuten. Kanpotikzetozen langile guztiak migranteak ziren eta, gure sorpresarako, esan ziguten enpresak ez ziela kontraturik egin.

**Abuztuan egin zuen gainezka egoerak, ezta?**

*A.C.M.:* Bai, hilabete txarrena izan zen. Abuztuaren 18an ospatu zen ‘Uraren jaia’.

*J.C.L.:* Ez ziguten aurretik ezer esan. Gu tranpolinetatik botatzea debekatzen ari ginen, COVID-19aren balizko kutsatzeak saihesteko. Eta, egun batetik bestera, puzgarrietatik botatzea baimenduko genuen? Nolatan?

*A.C.M.:* Udaletxearekin harremanetan jarri ginen ohartarazteko ezingo zirela koronabirusaren aurkako neurriak ezta haurren segurtasuna bermatu, ez zeudelako horretarako sorosle eta begirale nahikorik. Enpresak bi langile ekarri zituen gauzak muntatzera, kontraturik gabe, eta eurek egin behar omen zituzten baita begirale lanak ere. Eskerrak eguraldi txarra atera zela eta ez zela jende askorik bertaratu.

*J.C.L.:* Egun batzuk lehenago, abuztuaren 13an, enpresak ez zuen inor ekarri sorosleei erreleboa emateko. Ni eta beste sorosle bat goizeko txandan geunden eta gure txanda amaitu arte egonginen. Gu ordezkatzera inor ez zetoze ikusi genuenean erabakigenuengoiko igerilekuak ixtea. Horregatik proposatu zion Lazarok (enpresaren kudeatzaileak) Udalari ‘Uraren jaia’ antolatzea, egun horretan



Ainzane Cuadra Marigorta eta Josune Cuadra Larrakoetxea, igerilekuen atzeko aldean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

**Migratzaileak Afrikatik datozenean, eta jendea Mediterraneo itsasoan hiltzean ez da ahotsik altxatzen, Ofogoren aburuz, “hemen ezikusiarrena egiten da**

egon ziren kexa guztien konpentsazio gisa.

*A.C.M.:* Igande batean sekulako beroa egin zuen eta ez zituen sorosle gehiago ekarri. Haur batek digestio-etena izan zuen eta emakume batek bero-kolpe bat pairatuz, eta ez zegoen langile nahikorik egoera bideratzeko. Ezin genuen igerilekua utzi, baina pertsona hauek artatu behar genituen. Kaosa izan zen.

**Igerilekuetako denboraldia amaitu zenean bildu zineten Udalarekin. Hor atera zen kontratuen afera, ezta?**

*A.C.M.:* Bai. Hor ikusi genuen Udalarij jardun osoko kontratuak aurkeztu zizkiola, gure sinadurak faltsututa, gu benetan jardun erdiz geundenean. Udalak salaketa jarri du horregatik, eta prozesu judizialean murgilduta gaude.

**Epaiaketa aurrera doa, beraz.**

*A.C.M.:* Bai, momentuz aurrera doa. Udalarekin epaiketa apirilean izango du, gure sinadurak faltsutzea egotzita.

Gu lekuko moduan joango gara bertara.

*J.C.L.:* Beldurgaradatorrenudan ez ote den berdina gertatuko. Hau beti gertatuko da udalak ez baditu kontratuaren baldintzak aldatzen. Eskaintza merkeena hartzen da. Udalak jartzen du 230.000 euro inguru behar direla igerilekuak kudeatzeko, eta enpresek hortik beherako eskaintzak egiten dituzte, 40.000-50.000 euro inguruko jaitsierak eginez. Langileen gastuak batuta zifra hori gaintzen da, eta gastu gehiago gehitu behar dira gero. Proiektu onena hautatu beharko litzateke.

Gainera, hasieran langileak ez geunden kontratuko pleguetan subrogatuta, batzuk lanean 14 urte daramaten arren. Udalera joan behar izan ginen zerbitzua zein enpresari esleitu zioten jakiteko, curriculumak bidali ahal izateko.

Bukatzeke, eskerrak eman nahiko genizkieke igerilekuetako erabiltzaileei, uda guztietan datozeinei eta lagundu, babestu eta ulertu gaituztenoi.

# kultura

## “Akordioari esker museoa zabalik eta bizirik dago”



**PAKI OFIZIALDEGI** (Artziniega, 1960)  
ARTZINIEGAKO MUSEOA KUDEATZEN DUEN ARTEA ETNOGRAFIA ELKARTEKO KIDEA DA. URTE KORAPILATSUEN OSTEAN MUSEOAREN ETORKIZUNA BERMATUKO DUEN AKORDIOA SINATU DUTE UDALA ETA FORU ALDUNDIAREKIN.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Artziniegako Museoak bere etorkizuna bermatzeko akordioa sinatu berri du Udala eta Foru Aldundiarekin, zertan datza akordio hori?**

Akordioa ekonomikoa da nagusiki. Izan ere, museoak kudeatzen duen Artea Etnografia Elkarteak ez du dirurik, irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta ezinezkoa zen proiektuaren bideragarritasuna bermatzea.

Museoarekin hasi ginenean Udalaren laguntza geneukan, baina denborarekin murriztuz joan da aurrekontua eta Foru Aldundiaren atzetik ibili behar izan gara, itota.

Ana del Val kultura diputatuak museoaren egoera zein zen ikusi zuenean indar guztiak jarri zituen honen etorkizuna bermatzeko aldera, eta hiru aldeak (Udala, Foru Aldundia eta Artea Elkarte) bilerak egiten hasi ginen. Bilerek aurrera egin ahala espektatibak gutxituz joan dira baina, gutxienez datozen lau urtetarako, eta baita zortzi urtetarako ere, museoarentzako ziurtasuna lortu dugu. Poztekoa da hori.

**Zein da akordioa sinatu duzuen alde bakoitzaren konpromisoa museoaren etorkizunarekiko?**

Arabako Foru Aldundiaren konpromiso handiena da, datozen lau-zortzi urteetan diru partida finko bat gordetzea Artziniegako Museora bideratzeko. Diru hori museoaren irekiera bermatzera egongo da bideratua.

Udalak, bere aldetik, eraikinaren mantenu lan guztiak asumituko ditu. Guk museoako bilduma lagatu diogu Udalari, honek erabili dezan. Ondorioz, bildumaren mantenua ere Artziniegako administrazioaren esku egongo da. Horrenbestez, Udalak aterako du museoak kudeatzeko zerbitzua, orain arte guk asumitu duguna.

Guzti horrek zama handia kenduko digu Artea Etnografia Elkartearen kideoi.

**Aldaketa handia izango da hori Artea Etnografia Elkartearentzat ezta?**

Urtero diru kopuru bat ordaindu behar genuela jakiteak eta diru kopuru hori ez genuela ikusteak buruhasute asko ekarri dizkigu, oso gogorra izan da. Udaletik, Foru Aldunditik edota Jaurlearitzatik atera behar izan dugu diru hori, beti ibili gara berandu. Baina, noski, ordaindu ezean; nork zabalduko zukeen museoak?

Arriskua izugarria zen. Orain

babes handia daukagu akordio berri honi esker. Orain lan etnografikoan zentratu gaituzke buru-belarri; hori da elkartearen xedea. Baita bilduma kontserbatzea ere.

**2019an hasi ziren orain erdietsi den akordioa negoziatzeko bilerak, nolakoak izan da prozesua?**

2018 urte bukaeran eta 2019 urte hasieran museoak atek itxi behar izan zituen dirurik ez zegoelako.

Herritar talde bat mobilizatzen hasi zen orduan. Mobilizazio horiek ez zituen Artea elkarteak sustatu, nahikoa geneukan museoaren itxierak zekarrena kudeatzen.

Herritar asko atera ziren kalera museoaren beharra aldarrikatzera, laguntza izugarria jaso genuen artziniegarren aldetik.

Horri esker, nolabait, akordio bat lortu genuen Udalarekin, baina bertan adostutakoak gure kontra egin zuen azkenean.

**“Instituzioekin jarraituko dugu lanean zortzi urte barru hitzarmen aberatsago bat mahi gainean prest izateko”**

2019ko udan Foru Aldundiko eta Udaleko hauteskundearen ostean, berriro eseri ginen, eta museoaren etorkizuna bermatzeko bilerak hasi genituen, hein handi batean Ana del Valek egindako lanari esker.

Prozesu luzea izan da, bilera asko egin ditugu, eta arazo juridiko askorekin egin dugu topo; gutxika Diputazioko zerbitzu juridikoek konpondu dituzten arazoak.

**Akordioarekin ere gauza batzuk bidean geratu dira, ezta?**

Bai, badira galdu ditugun kontuak. Alde batetik, ez dakigu zer ordutegi izango duen museoak aurrerantzean, Arabako Foru Aldundiaren araudia zorrotzagoa da eta.

Giden lana eta garbiketa lana banatu egin dira. Ondorioz, enpresak diru gutxiago jasoko du, eta zailtasunak ekarriko ditu.

Hala eta guztiz ere, proiektuak

aurrera jarraitzen du. Hobe da hori galdu izana, museoa bere osotasunean baino.

**Behin akordioa sinatuta, nola ikusten duzu museoaren etorkizuna?**

Nik museoa zabalik eta bizirik ikusten dut, eta hori ospatu beharra dago.

Epe luzean nik espero dudana da orain dugun hitzarmena hobetzea. Instituzioekin jarraituko dugu lanean zortzi urte barru hitzarmen aberatsago bat mahai gainean prest izateko. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa beharrezkoa ikusten dut nik. Laugarren hanka hori behar du museoak etorkizunean.

**Ibilbide luzea egin du Artea elkarteak orain arte.**

1970eko eta 1980ko hamarkada artean hasi ziren herritarrak lan etonografikoa egiteko elkartzan. Garai hartan baserri asko berri zizuten, baita eraitsi ere. Bertako objektu eta lanabesak inolako kontolik gabe botatzen ziren. Galera horren kezkatik abiatuta hasi ziren gauza desberdinak biltzen eta gordetzen.

Artea Etnografia Elkarteak 1984an sortu zen, Artziniegako Museoa egikaritzeko helburuarekin.

Museoa Arteko Gure Amaren santutegian zegoen kokatuta hasieran. Museo txiki bat zen, landa eremuko kontuak gordetzen genituen nagusiki. Denboraren

**“Herritarren artean eraikitako proiektua da Artziniegako museoa”**

poderioz geroz eta gauza gehiago pilatzen joan ginen. Farmazia itxi zutenean, adibidez, bertako gauzak gorde genituen, uko egin nahi genion bertako material etnografikoa galtzeari.

Udalak museoko eraikina lagatu zigun, hainbeste hasi zen bilduma kontserbatzen jarraitzeko. Jaurlaritzaren laguntzarekin eta udako auzolanderrietako boluntarioekin atontzen joan ginen espazioa, herritar asko inplikatu ziren ere proiektuan.

Museoak, gaur egun ezagutzen dugun bezala, 2004an zabaldu zituen ateak. Urte bete lehenago areto nagusia erabiltzen hasi ginen jarduera desberdinak egiteko.

**Herrian errotuta dagoen proiektua da, beraz, Artziniegako Museoa?**

Herritarren artean eraikitako proiektua da museoa. Guk, gainera, askotan esaten dugu honen atzean ez dagoela museoetako espezialista bat, baizik eta gai baikoitzean aditu eta aritua denak atondu duela bere espazioa: arotzak atondu zuen aroztegiaren espazioa, herriko botikarioak berea... Ez da bitrintan antolatutako museo bat, denboraren makina bat da.

Etnografia elkarteko kideak ez ezik, kolaboratzaile ugari ditugu ekintza desberdinetan laguntzen gaituztenak.

**Zeintzuk dira elkarteak egiten dituen ekintza etnografiko horiek?**

**“Herriarekiko gure konpromisoa da lan etnografikoa. Ezin dugu gure ondarea galdu, ezin ditugu gure sustraiak galdu”**

Asko dira, batzuk museoan bertan egiten ditugu, beste batzuk herrian zehar.

'Museo bizia' da horietako bat; artisauak etortzen dira eta antzinako ogibideak nolakoak ziren erakusten dute. Sasoiaren arabera ere ekintza desberdinak egiten ditugu: udaberrian ogia aintzina bezala egiteko tailerra, udako solstizioa ekainean, udazkenean txarriboda eta neguan Olentzeroren etorrera ospatzen dugu.

Horretaz gain, lan batzuk publikatu ditugu. Herrian errota eta sutegia ere berreskuratu ditugu. Azken urteetako lan zamak ez digu astirik utzi lan guzti horiei arreta jartzeko. Horregatik espero dugu akordio honen ostean lan etnografikoa murgiltzea berriro.

Karpetan ideia asko ditugu gordeta, horiek egikaritzeko denbora eta jendea behar ditugu. Elkartean belaunaldi aldaketa bat eman behar da. 20 kide inguru gaude elkartearen eta zahartzen ari gara, haize freskoa ezinbestekoa da lan etnografikoarekin jarraitzeko.

**Zer garrantzi dauka zuretzat etnografiak?**

Herriarekiko gure konpromisoa da lan etnografikoa, ez bakarrik Artziniegarentzat, gizarte guztiarentzat. Ezin dugu gure ondarea galdu, ezin ditugu gure sustraiak galdu. Ezinbestekoa da gure bizitza nolakoak zen jakitea aurrera egin ahal izateko.



# kultura



## Itsaso bete istorio Faktoriako portuan

Olatu arteko txalupa arraroa ikuskizuna eskaini zuten Ines Osinaga musikariak eta Joseba Sarrionandia idazteak larunbatean Faktorian.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

“Ikusten da porturik? Ez dugu ikusten baina imajinatzen dut eta haruntz goaz arraunean”. Historia eta istorioz jositako emanaldia eskaini zuten larunbatean Joseba Sarrionandia idazleak eta Ines Osinaga musikariak. Elkarrekin egin zuten Gosariak diskoa Habana (Kuba) eta Euskal Herria lotuz 2014. urtean; eta itsasoratutako proiektuaren aparrak ekarri zituzten Faktoriako portura. Sarrionandiak abesti bakoitzaren atzeko istorioa kontatu zuen, Osinagak trikitixa, perkusioak eta ahotsak nahasten zituen bitartean. Ordu eta erdiko ikuskizun aparta izan zen, txalo eta historia zaparrada artean.

10 kanturekin busti zituzten 140 ikus-entzuleren belarri eta begi-masailak. “Katuen gauzekin” abiatu zuten saioa, katu hitzaren hamaika ikuspegi eta lotura abesti bilakatuta: katu, madarikatu... “Katuen kantuak konplikatuak dira. Kantuekin batera ipuintxoak bidali zizkidan Sarrrik Kubatik; erruari buruzko gogoetak... Sekulako ardura nuen sentitutakoa kantu bihurtzeko”, aitortu zuen Osinagak.

Umoretik hasi arren, ertz ugari ukitu zituzten narrazio eta musika bidez. Esaterako, Habanan Ana izeneko sexu langilea lagun zuela kontatu zuen Sarrionandiak, eta haren bizimodua ardatz osatu zuela Anaren hiri arraroa kantua: “Eguna lanean pasatzen zuen autostopa eginaz, 16:00etan umea etxeratu arte. Prostituzioan gai asko nahasten dira: amatasuna, dirua, lotsa... Gai hori planteatzen du abestiak. Amodioa ez omen da duina doanekoa ez bada”.

Banketxeetako lapurrak izan zituzten hizpide ondoren, baina lapurren egoera oinarri: “Banku atrako asko egon dira:

iraultzaileenak, delinkuenteenak...”. Irri ugari lapurtu zituen idazle ezagunak, dena den: “Aspaldian banketxeek gainditu dute arazo hori: iraultzaile guztiek XX. mendean lapurtutakoa baino gehiago lapurtzen dute urtebetean”. Korapilo ugari mahaigaineratu zituzten bi sortzaileek, oro har.

### Historiaz blai

Historiaren sokari heldu zioten hainbatetan. Adibidez, ‘Durangoko plateruak’ nortzuk izan ziren ekarri zuten gogora; XVIII. mendeko kanta bati helduta. “Durangoko plateruak, zilarginak ziren ogibidez. Abesti asko egin zituzten, ahoz aho heldu direnak gaur arte. Eurek egin zuten Hator-hator gabon kanta”. Antza, Gasteiztik Durangorako bidean plateruak harrapatu zituzten bandoleroek, “baina abestiengatik nortzuk ziren ohartu, eta zilarrak bueltatu zizkieten”. Hargatik, plateruen kantu bat bertsionatu zuten Sarrionandiak eta Osinagak, Causino filosofoari buruzkoa, “alaitasuna deskubritu zuelako Causinok”.

Poztasunetik maitasunera egin zuten jauzi, Saharako te kikara artean egositako gazte baten istorioa iparrorratz. “Orain 35 urte bazen Saharako basamortuan mutil bat, oso maiteminduta zegoena. Luzaro egon zen neskaren zain. Tea hartzera gonbidatu zuten egun batean. Hemengo poteoa bezalakoa da tea hartzea bertan, errituala, 3 te kikara hartzen dira han”, aitortu zuen Sarrionandiak. Itxaropenari euste aldera, esaera bat irakatsi omen zioten gazteari, eta hori erakusten du kantuak: lehen te kikara bizitza bezain garratza da, bigarrena maitasuna bezain goxoa, eta hirugarrena heriotza bezain iluna. “Gaztea pentsakor geratu zen, eta horren ondorioa da kantua”, kontatu zuen idazleak.

## kultura

Arrasate izan zuen kokaleku hurrengo sormen olatuak, bertako zoroetxea hain zuen. Jende eta gertaera ezagunak jazo ziren bertan: “Antonio Canavas del Castillo han hil zuen tiroka anarkista italiar batek, eraikina zoroetxe bihurtu baino lehen. Gero Leopoldo Maria Panero poeta egon zen bertan ingresatuta. Zoroetxei buruzko metaforan datza abestia”. Osinagak kantatu zuen gertaera hura oinarri sortutako pieza, kontraesanetan kulunka: “Zein da zoroetxea, gurea ala zure aldea?”.

XVII. mendeko hizkera eta iruditegiko koplak mantendu dituzte Gernikan, Sarrionandiak aipatu zuenez. Bertso horietan Belenen jaiotza kontatzen da. “Egun Zisjordania da, leku oso konfliktiboa, Israelen mendean dago. Letra honetan koplak tradizionalen eta albistegietako gertaeren nahastea proposatzen da”. Txalo zaparrada amaigabea jaso zuen Osinagak, koplak saioaren interpretazioagatik, goxotasuna eta gerraren gordintasuna zein krudeltasuna transmititu baitzizkion publikoari

## 10 kanturekin busti zituzten 140 ikus-entzuleren belarri eta begi-masailak

ahotsa, soinu efektuak eta indarra tartekatuta.

Gatazketan murgilduta, Euskal Herriak historian utzitako -edo hautsitako- markari kantatu zioten emanaldiaren amaieran. Kartzelen inguruko gogoetak zabaldu zituzten lehenbizi: “1977. urtean 24 orduko amnistia deklaratu zen Espainian, eta hori izan zen preso gabeko egun bakarra. Pentsatzekoa da gauza ez dela euskaldunak historikoki preso daudela Espainian eta Frantzian, baizik eta kartzela direla bi estatu horiek gure herriarentzat”. Erruduntasunaz aritu ziren gero, “Euskaldunok zerbait proposatzen dugunean, erresistentzian dagoenean, tontotzat edo baserritartzat gaituzte. Erru hori eraren batean asumitzea proproosatzen da hurrengo abestian. Txintxotzat hartzen bagaituzte ezer egin ez dugulako da. Errudun izateak aintzat hartzen du zerbait egin dugula gauzak aldatzeko”, azpimarratu zuen idazleak.

Ordu eta erdiren ostean

## “Klandestino gabiltza, saioak tentuz iragartzen ditugu; leku goxo eta epeletan egiteko. Hau da gure ondasun guztia, kantuak, kontuak eta berbak”

heldu ziren amaierako portura, itsasoari so. Izan ere, Greziako literaturan zein Erdi Aroan gizartearen errepresentazio gisa erabiltzen zen itsasoa, Sarrionandiaren esanetan. “Abestia gure herriaren metafora da, itsasontzi forman: ikusten da porturik? ez dugu ikusten, baina imajinatzen dugu eta haruntz goaz arraunean”. Eta eurekin arraunean zein kantuan bukatu zuten emanaldia, Faktoriara gerturatutako 140 lagunen babesean.

Aurrerantzean, tantaka egingo dituzte emanaldiak, aitortu zuten: “Klandestino gabiltza, saioak tentuz iragartzen ditugu; leku goxo eta epeletan egiteko. Hau da gure ondasun guztia, kantuak, kontuak eta berbak. Espazio seguruak topatu ditugu hau dena biluztu, kontatu eta konpartitzeko”. Ines Osinagak Faktoriari eskertuz bukatu zuen emanaldia: “Hona gatozen bakoitzean ‘bai, posible da’ pentsatzen pasatzen dugu astebate. Eskerrik asko”.



# Otsaila FAKTORIAN

🌐 [www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus)  
✉ [faktoria@aiaraldea.eus](mailto:faktoria@aiaraldea.eus)  
☎ 688 647 942  
📍 Errotari kalea 4-8  
Laudio (Araba)

## IKUSKIZUNAK



**Otsailak 10, eguena, 19:00etan**  
**BIDEA DA BORROKA**  
KOMIKIAREN BERTSO-AURKEZPEN ILUSTRATUA  
Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariek **BIDEA DA BORROKA** komikia aurkeztuko dute Faktorian, bertsoak eta marrazkiak erabiliz horretarako.  
**DOAKOA**



**Martxoak 19ra atzeratua**  
**IKER LAUROBA ETA BESTE URTAROAK**  
Lau urtaroen bilduma amaitu berri, zuzenean aurkezteko tokatzen da orain. Lau kontzertu txiki emanaldi batean bilduta ekarriko dizkigute Ikerrek eta bere bandak. Musika eta hitzen bidez ekinokioetatik solstizioetara eramango gaituzte entzumeneko bidaiu ederrean. Horretarako Leire Berasaluze, Urbil Artola eta Maria Soriazu izango ditu Ikerrek bidelagun.  
**Bazkideak 8€ // Ez-bazkideak 10€**



**Otsailak 13, domeka, 17:00etan**  
**"EMON EGURRE PINOTXO"**  
IPUIN KONTALARIA - ANE GEBARA ETA AITOR VINAGRET  
Ane Gebara eta Aitor Vinagret Arabazari Kultur Elkarteak kontalariek, ipuinen hariari hasiera emango diote, etenik gabeko ipuinak.  
**Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€**



**Otsailak 18, barikua, 20:30ean**  
**BERTSO AFARIA:**  
ONINTZA ENBEITIA ETA MIREN AMURIZA  
Bi hilero behin bezala, bertsoaren eta tokiko produktu ekologikoen osatutako afariaren bueltan batuko gara Faktorian, oraingoan Onintza Enbeitia eta Miren Amurizaren konpainian.  
**Bazkideak 15€ // Ez-bazkideak 18€**



**Otsailak 19, zapatua, 20:30ean**  
**KANTAK ETA BERBAK INES OSINAGA ETA JOSEBA SARRIONANDIAREKIN**  
"OLATU ARTEKO TXALUPA ARRAROA"  
Duela ia hamar urte Joseba Sarrionandiak Habanako sortu zituen dozena bat testu kantu bihurtu zituen Ines Osinagak. Orain, idazlea berriz ere Euskal Herrira itzuli delarik, bi sortzaileen kantak eta berbak izango ditugu Faktoriako oholtzan.  
**Bazkideak 10€ // Ez-bazkideak 12€**



**Otsailak 27, domeka, 17:00etan**  
**TRAKAMATRAKA**  
Birziklatutako materialak sortutako musika tresnekin ikuskizuna eskainiko du, musika ulertzeko eta maitatzeko modu berri bat.  
**Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€**

## BERBALDIAK


**Otsailak 25, barikua**  
**KOOP57 EUSKAL HERRIAREN BATZAR OROKORRA**  
Finantza zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatibak bere urteko Batzar Orokorra egingo du Faktorian, arratsaldean.



## KOKORIKO JARDUERAK



**Otsailak 5, zapatua, 11:00etan**  
**FAMILIA JOLASEAN: JOLAS SINBOLIKOA**  
Material ezberdinak erabiliz, gustuko ditugun pertsonaiak sortzeko proposamena. Familian jolasteko beste modu bat, gurekin jolatu nahi?  
**Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€**



**Otsailak 6 eta otsailak 20, domeka, 11:00etatik 13:00etara**  
**0-3 URTE ESPAZIO ASKEA**  
Mugimendu autonomorako eta jolas liberako espazio zaindua. Profesional baten laguntzarekin, familian gozatzeko espazioa, beste familiarekin elkargunea.  
**Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€**



**Otsailak 12, zapatua, 10:00etatik 14:00etara**  
**HELDUENTZAKO IKASTARO PRAKTIKOA**  
DANTZAREN IRAKASPENAREN IKUSPEGI SORTZAILEA  
Mugimendu jokoak, errimikoak, sozialak, sortzaileak. Dantza eta hezkuntza bat egiten duten ikastaro praktikoa, Leire Amonarri pedagogoa eta koreografoaren eskutik.  
**Bazkideak 20€ // Ez-bazkideak 25€**



**Otsailak 19, zapatua, 16:30etatik 18:30etara**  
**KOKORIKO LUDOTEKA**  
Egun bakoitzean gozatzeko modu ezberdin bat. Oraingoan ERAIKUNTZAK. Gure ingurua ezagutzeko beste modu bat. Eraikuntza eta arkitektura deskubritu eta gozatzeko aukera ezin hobea.  
**Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€**



**Otsailak 26, zapatua, 18:00etatik aurrera**  
**GAZTEAK: NEON GLOW JAIA**  
Lagunekin inauteriak gozatzeko espazioa. Musika, tik-tok, photocall-a, jolasak, alkoholik gabeko koktelak, zozketak, neon body-paint... 10-16 urte bitarteko gazteentzat.  
**Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€**



**Otsailak 28 eta martxoak 1, astelehen eta martitzena, 09:00etatik 13:00etara**  
**INAUTERI LUDOTEKA**  
Inauteri opor egunetan, jolasak, tailerrak, sukaldaritza, eskulanak, mozorroak, ... Lurraren esnatzea ospatuko dugu lagun artean.  
**Bazkideak 25€ // Ez-bazkideak 30€**

## KOKORIKO ATELIERRAK



**Astelehenero,**  
17:30etan eta 18:30etan  
**IRAKURLE KLUBA**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero



**Egunstenero,**  
17:30etan eta 18:30etan  
**IKUS ENTZUNEZKOAK**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero



**Martitzenero,**  
17:30etan eta 18:30etan  
**ZIRKU TAILERRA**  
Bazkideak 40€ / hilero  
Ez-bazkideak 48€ / hilero




**Eguenero,**  
17:30etan eta 18:30etan  
**SUKALDARITZA TAILERRA**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero

## FAKTORIA ESKOLAK



**Astelehenero eta eguztenetan,**  
10:30etatik 12:00etara  
**EUSKARA ESKOLA ARINAK ADINEKOENTZAT**  
Bazkideak DOAN  
Ez-bazkideak 20€ / hiruhilero



**Egunstenero,**  
19:30etatik 21:00etara  
**YOGA EUSKARAZ FAKTORIAN**  
Bazkideak 50€ / hiruhilero  
Ez-bazkideak 60€ / hiruhilero



**Astelehenero,**  
19:30etatik 20:30etara  
**ZUMBA EUSKARAZ FAKTORIAN**  
Bazkideak 50€ / hiruhilero  
Ez-bazkideak 60€ / hiruhilero



**Egunstenero,**  
19:30etatik 21:00etara  
**BERTSO ESKOLAK FAKTORIAN**  
Bazkideak 50€ / urtea  
Ez-bazkideak 60€ / urtea

● MUSIKA ● KOMIKIGINTZA ● BERTSOLARITZA ● IPUINAK ● FAMILIA ● ELIKADURABURUJABETZA ● LITERATURA ● JOLASA ● EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA  
● HEZKUNTZA ● DANTZA ● IKASTAROA ● INAUTERIAK ● GAZTEAK ● LUDOTEKA

## EKONOMATUA

Astelehenetik barikura 11:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00  
Zapatuetan 10:30 - 14:00  
☎ 722 846 762 ✉ [ekonomatua@aiaraldea.eus](mailto:ekonomatua@aiaraldea.eus)

## KANTINA



## KANTINA

Ekonomatua irekita dagoen ordutegian eta Kultur emanaldiak dauden guztietan irekita egongo da  
☎ 722 846 762 ✉ [kantina@aiaraldea.eus](mailto:kantina@aiaraldea.eus)





## Egun osoko egitaraua egongo da Korrikaren hasieran, eta makina bat ekintza aurreko asteetan

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Dozenaka euskaltzale bertaratu ziren iragan ostegunean Amurrio Antzokira. Korrikaren aurkezpena egin zuten bertan, eta euskararen aldeko ekimen horren hainbat xehetasun aurreratu zituzten.

Euskaren aldeko ekimen ibiltariaren nondik norakoak azaltzeari ekin zioten AEK-ko kideek. "Martxoaren 31n aterako da Korrika Amurriotik, eta egun osoko egitaraua prestatzen gabilta ordurako", iragarri zuten. Alabaina, ez zuten zehaztatsun askoz gehiagorik eman. Izan ere, ez dute espektatiba askorik sortu nahi, antolatu ahalko dutena pandemiaren bilakaeraren arabera izango delako.

Hala ere, egun osoko egitaraua antolatzeke asmoa plazaratu zuten AEK-ko kideek: "Azoka bat egiteko asmoa dago, erakusketa bat... musika ere jarri nahi dugu kalean. 16:00etan izango da hasiera ekitaldia, eta ordu erdi beranduago aterako da Korrika".

### Korrika kulturala

Amurrioko Korrika Kulturalaren nondik norakoak ere azaldu zituzten. Jarduera hauek egingo dituzte herrian motorrak berotzeko: Pirritx, Porrotx eta Marimotsen emanaldia eta solasaldia, Gurasolagun egitasmoaren irteerak, Arabako euskarazko futbol topaketa bigarren edizioa, petoekin poltsak egiteko tailerra Kasilda Marañonekin, *Elkar ezagutu genuen eguna* antzezlan, *Uhinak* dokumentalaren proiektzioa *Korrika kamiseta bidaiaria* hitzaldia Koldo Urkixorekin, *Txiribuelta* hitzaldia Asier Arroitarekin edota Bizikleta ginkana.

### Korrika txikia

Korrika txikia ere egingo dute Amurrioren. "Zalantza

genuen antolatu edo ez", aitortu zuten ekitaldian, "Ez dakigu zer egoeratan egongo garen martxoan. Seguraskiezingo da ohiko formatuan egin. Eredu berri bat pentsatzen gabilta".

AEK-ko kideek gogorarazi zuten Korrikaren helburuetako bat dirua lortzea dela. "Ez da polita horrela esatea, baina horrela da. Dirua behar dugu euskaltegien mantenturako". Gauzak hala, ekarpen ekonomikoak egiteko bideak gogoratu zituzten: Korrika laguna izatea, laguntzaile pina eskuratzea edota plazaratu duten materiala erostea.

### Ibilbidea

Korrikako lehen kilometroak ere izan zituzten hizpide. Askoz zati laburragoak egin behar izan dituzte, parte hartu nahi izan duten guztiei tartea egiteko. "Ia denak daude erreserbatuta, jendearen erantzuna oso handia izaten ari da. Ikusi behar dugu nola kudeatzen dugun". Horrez gain, aparteko arazo bat jarri zuten mahai gainean: Korrika trenbidearen beste aldera igarotzea ezinezkoa dela, furgoneta ez delako zubien azpitik sartzen. Hala ere, nahi duten guztiei lekua bat gordetzen saiatuko dira.

Horri lotuta, gogorarazi zuten ez dela beharrezkoa diru kopuru finkoa eskuratzea kilometro batean parte hartzeko. "Instituzio handiek ekarpen handiak egiten dituzte. Eragile txikiek, aldiz, ahal dutena ematen dute".

Bukatzeke, AEK-ko kideek eskerrak eman zizkieten Korrika antolatzen lagundu duten persona guztiei. Hala ere, batez ere, euskaltegitik igaro diren persona guztiei egin zieten aipamena: "Gu orain hemen bargaude zuek noizbait hor egon zinetelako da".

### Auzolanerako deia

Auzolanerako deia ere luzatu zuten antzokian: "Hasiera egunean lagundu nahi izanez gero, bidali mezu bat amurrio@aei.eus helbidera edo euskaltegitik pasatu".

## 'London Fashion Week'-en egon ziren ikusgai Mikel Lazkanoren lan berriak

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Mikel Lazkano gazte orozkoarrak London Fashion Week jaialdian parte hartu zuen iragan otsailaren 18an. Munduko erreferente den ekimen horretan, bere sormen lanak egon ziren ikusgai.

Hain zuzen, 'Lazkano' markaren sortzaileak zenbait arropa txertatu zituen London College of Fashion akademiako ikasle gisa. Antolatzaileek horrela

aitortzen dute erakunde horrek duen izaera aitzindaria balio eta sortzaile berriak trebatzeko eta azaleratzeko.

Iaz bertan behera geratu ostean, London Fashion Week-ak eredu fisikoa eta birtuala uztartu ditu eta, horregatik, streaming bidez ikusi ahal izan zen desfilea. Otsailaren 18an izan da irekiera ofiziala, nahiz eta aurretik egitarauaren zati bat egin zuten. aurtengo edizioa.

Mikel Lazkano duela bost urte joan zen Cityra moda eta diseinu ikasketekin jarraitzeko eta bere

sorkuntza diskurtsoansakontzera. Izan ere, orozkoarrak estilo zehatza proposatzen du: "Linea sinpleak eta kolore neutroak, denboran iraun dezaten, eta gizentasun-eredu samurra, jakituna, ingurumenaren hauskortasuna errespetatu eta kontsumo arduratsua sustatzen duena".

Zentzu horretan, Lazkanok bere ideiak Londresen mamitu arren, Bizkaian ekoizten ditu, "tokiko kalitatea hobeezina" dela uste baitu.

# Lan eskaintza

## FAKTORIAKO KULTUR DINAMIZATZAILEA IZAN NAHI DUZU?

Aiaraldea Ekintzen Faktoria kultur-sorkuntza ildoko dinamizatzaile eta programatzaile bila dabil. Lanpostua lanaldi erdikoa da.

Lan-deialdi honen gainera interesa baduzu, bidali aurkezpen gutuna eta Curriculum Vitae-a [lanpoltsa@aiaraldea.eus](mailto:lanpoltsa@aiaraldea.eus) helbidera otsailaren 25a baino lehen.

Informazio eta baldintza zehatzak hemen



# kirola

## “Mendiaz guztiok modu osasuntsuan gozatzea da taldearen helburua”

2019an parketik atera zen lasterketa. Aurtun, herriko plaza izango da irteera eta helmuga gunea. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Ekainaren 19an egingo dute Amurrio Trail lasterketa. Bi proba prestatuko dituzte aurtun, 15 kilometro izango ditu lehenak, eta 31 bigarrenak.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Ekainaren 19an egingo du Amurrio Trailek bederatzigarren lasterketa. "Parte hartu nahi dutenek data gorde dezatela", adierazi du Aizaro Maraion elkarteko kideak. Orain arte hiru proba prestatu dituzte, baina aurtun bi izango dira. Lehenbizikoa 15,6 kilometrokoa, eta bestea 31 kilometrokoa. Modu horretan, maila guztietara egokitutako eskaintza egin nahi izan dute.

Gorka Maraionek erantsi duenez, zirkuitu motza herrikoia izango da: "Desnibel arrunta du, 600 metro ingurukoa. Edonork pixka bat entrenatuta egin dezake, teknikoki ez da zaila, ez dago leku arriskutsurik. Zeharkaldi luzeak 1.800 metroko desnibela izango du, eta zailagoa da, hori bai". Unginoraino joango dira Amurriotik lasterkariak, eta Gorobel magaletik ibiliko dira. "Oso polita da, baina prestatuta egon behar da. Ibilbide laburrak Babio eta Burubio lotzen ditu, Amurrioko gailurretatik

pasatzen da", azaldu du Nork bere erritmora egitea proba nahi dute, eta gozatzea. "Lasterkari guztiak garrantzia berdina dute, bai lehenbizikoak eta baita azkenak".

Amurrioko plaza izango da irteera eta helmuga gunea. "Printzipioz herriko plaza izango da, iaz parkea izan bazen ere. Dena den, azken orduan alda daiteke", zehaztu du Aizaro Maraionek.

Interesdunek sportmaniacs webgunean egin beharko dute izen-ematea. Alabaina, martxoaren 1etik aurrera irekiko dute horretarako epea. Federatuek 20€ ordaindu beharko dituzte, eta besteek 22€. "Ekainaren 1etik aurrera 5€ garestituko da izen-ematea", erantsi dute kideek.

400 korrikalari jasoko dituzte gehienez: "Taldea txikia gara, eta pertsona gehiago hartzekotan ezingo dugu guri gustatzen zaigun kalitate eta zaintza eskaini. Geroz eta lagun gehiago, lana handiagoa da. Pertsona guztiei banaka azaltzea gustatzen zaigu dena: ibilbidea, dutxen kokalekua, motxilak gordetzeko

gunea... Prestaketa lanetan zein eguneroko lanean jende asko ibiltzen gara".

Probaren atzealdeko lanaz galdetuta, denetariko zereginak aipatu dituzte biek: ibilbide markaketa, mendi garbiketa, baimenen kudeaketa, korrikalarientzat poltsak prestatzea, anoa puntuetako horniketa...; "boluntario zenbakia oso handia da, oso zaila da zehaztea".

Euskal Kopan sartuta dago Amurrio Trail lasterketa eta, ondorioz, Arabakoan ere. "Horrek korrikalari enmaila bermatzen du, jende arrunta ere egongo bada ere", kontatu du Gorka Maraionek.

### Mendi Filosofia zabala

Kirol elkarte gisa jaio ziren, eta elkartasun ekimenen bultzatzaile bukatu dute. Aizaro Maraionen hitzetan, denetariko ekintzak egingo dituzte: "Mendigarbi jarduera antolatzen dugu Amurrioko mendi inguruak garbitzeko. Bestalde, abenduan Non-Stop jarduera egingo dugu, nahiz eta aurtun ez dakigun zein elkarte lagunduko dugun bertako diruarekin. Olentzeri txondorarekin laguntzen diogu ere. Egokitutako aulkiari ere bultzatza-

**“Zirkuitu motza herrikoia izango da, teknikoki ez da zaila. Proba luzeak 1.800 metroko desnibela izango du”**

da eman nahi diogu, Spiderabel kidea dugu hori antolatzeko”.

“Guztionez mendia izatea, eta elkarlana”. Horiek dira, Aizaro Maraionen aburuz, elkarte ezaugarritzen duten balioak, "herri-lana". Kirola egiteko eragile izatetik, bestelako praktika eta ekimenak sustatze-iragarora, adibidekerakusten dutenez: Babio igoera antolatzea, mendira behar bereziak dituztenak laguntzeko aulki egokituaren erosketa, elkartasun ekimenak burutzea...

Pandemia garaia ez ditu gelditu. 2021ean Urrezko Guk Saria jaso zuten, aitortza gisa. "Izugarrizko harrotasunarekin bizi izan genuen, herriko sari garrantzitsuena gure erakundeari ematea poz handia da", oroitu dute Maraion ahizpa-nebek. "Sentimendu asko zeuden bertan, pandemia oso gogorra izan da denontzat. Pandemia urtean Guk saria jasotzea oso polita eta hunkigarria izan zen".

"Kirol munduan stop bat izan da pandemia, kirol probak ezin izan ditugu antolatu. Beste alde batetik, berriki batzuk ekarri du, gauza gehiago egingo ditugu orain. Arazo batek bide desberdinak ireki dira", azaldu dute.

Otsailaren 20an jokatu dute azaroaren 28an egitekoa zen Amurrioko Eskola Krosa. Arabako atletismo talde asko bertaratu dira, eta 250 haur baino gehiago aritu dira Reforreko zelaietan lasterka. Kiroltasuna izan da hitzorduko osagai nagusietako bat.

# Amurrioko Refor, eskola krosaren joko zelai



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Abenduan izan behar zen norgehiagoka, baina euriteen ondorioz otsailera atzeratu zuten. Arabako zirkuituko azken hitzordua izan zen atzokoa. 11:00etan hasi zen kirol proba, eta 6 karrera izan zituzten gozatzeko bertaratutako

korrikalari zein ikusleek. Kategoriaren arabera, itzuli kopurua aldatu zuten.

Jendetza batu zen Refor inguruetan partaideak animatzeko. Eguraldiak eutsi egin zion, eta giro bikainean jardun zuten protagonista guztiak. Aiaraldeko ordezkariak ere egon ziren. Horien artean, Laudio Atletismo taldekoak, Amurrioko

kideak zein Artziniegakoak. "Artzikirol taldearen baitan ordezkari bat egon da parte hartzen", adierazi zuten Oinkariak taldekoek.

Ekimenaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Hurrengo urteko edizioaren data ere aurreratu dute: abenduaren 13an jokatu da Amurrioko laugarren eskola krosa.



# kirola

BOLOAK

## Kexaan hasi da Udaberriko bola txapelketa

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Abian da Udaberriko bola txapelketa. Larunbat eta igandeetan izango dira partidak Aiarako bolatokieta. Zehazki, Kexaan eta Beotegin elkartuko dira zaleak zein jokalaria. Larunbatean hasizuten tokiko txapelketa, eta giro ederrean aritu

ziren bola jaurtitzen. Bi orduz luzatu zen tiraldia larunbatean, 18:00etatik 20:00etara alegia. Bigarren txanpa gaur izan da, 11:00etatik 13:00ak arte. Aste honetan izango du segida ekimenak. Otsailaren 26an eta 27an zein martxoaren 5ean eta 6an izango dira hurrengo probak.



**ARITZ ARBERAS**  
BAHRAIN TALDEKO PRESTATZAILEA

“El Mortirolillo”



Gure inguruko errepideetan 'El Mortirolillo' bezala ezagutzen zen igoera bat zegoela, lehen aldiz, aitak esan zidan. Erbi eta Ozeka lotzen zuen errepideari ezizen hori jarrita zioten Aiaraldeko txirrindulariek.

Bizikleta hartu eta bidegurutzearen bila joan nintzen. “Zer nolako igoera izango da, Italiako Giroko portutzar horren izena jartzeko?” galdetzen nion nire buruari.

Kostera/Opellora deskubritzeko espedizioa bestalde, arras ezberdina izan zen. Mastin txakur bat igoerako zati gogorrenetakoan agertu zitzaidan, bizikletari buelta eman eta, ziztu bizian, alde egin nuen.

Biak konbinatuko ditu 2022ko Euskal Itzuliko edizioak, lasterketa handien tradizioa mantentzeko. Kostera/Opelloran gora %25eko maldak pasa ostean, hiru minutu t'erdia baino pixka bat gehiagoko esfortzua egin behar izango dute txirrindulariek. Gero bost minutuko tarteko “errekuperazioarekin” Erbin aurkeztuko dira eta 'El Mortirolillo'-n gora igotzen zortzi minutuko ahalegina egingo dute.

Izan ere, hor egongo da etaparen gakoa, bi esfortzu bortitz egin behar izateak, hain denbora tarte txikian, bakarrik ziklista hoberenak lasterketaren buruan utziko ditu. Malda zakarrei lotuta, igoeretara hurbiltzeko errepide sigi-sagatsuek tentsioa handituko dute. Telebistan sumatzea zaila den pelotoi barruan puntako posizioak lortzeko borrokak, higadura sortuko du txirrindularien artean.

Ez dira baina etapak gordetzen dituen zailtasun bakarrak eta, Hondarribiko kronoaren eta urteroko Arrateko etapa erabakigarriaren lizentziarekin, gure bailarako etapa epaile izan daiteke Itzuliko sailkapen orokorreko garailea erabakitzen.

Apirileko lehen asteazkena egutegian markatu. Munduko txirrindularitzak Aiaran emango duen 'show' bikaina ez galdu. Bizikletan eta naturan egun zoragarria bizi dezazuela opa dizuet.

MENDI LASTERKETAK

## Azaroaren 13an egingo dute Urduñako Mendi Lasterketaren edizio berria



Ehunka kirolari elkartzen ditu urtero Urduñako Mendi Lasterketak.. **Endika Diaz**

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Gualdetxu Mendi Bizikleta eta Trail Taldeak antolatutako Urduñako Mendi Lasterketaren edizio berria datorren azaroaren 13an egingo dute. Hala iragarri dute antolatzaileek sare sozialetan. Lasterketa puntuagarria izango da Euskal Mendizale Federazioaren Koparako. Izena emateko epea maiatzaren 1ean irekiko dute.

Bi ibilbide aurkeztu dituzte,

eta datozen hilabeteetan emango dituzte hauen gaineko zehaztasunak, baina aurreratu dute Gorobel mendilerroan barrena arituko direla kirolariak. Lasterketalaburrak, 13 kilometroko luzera eta 450 metroko desnibel positiboa izango du; bestea, aldiz, 33 kilometroko ibilbidea izango da, 1.750 metroko desnibel positiboarekin. Lasterketa luzearen kasuan, erreleboka egiteko aukera ere egongo da.

**Ibilbide luzeko lasterketa**  
Azaroaren 17koa Urduñako

Mendi Lasterketaren V. edizioa izango da. Egitasmoa 2017an abiatu zuten Urduñako Mendi Maratoiaren estreinako edizioarekin, eta 2018an errepikatu zuten formula.

Pandemiak ez zituen antolatzaileak gelditu, eta Txolope gailurrera igoera bertikal batekin ordezkatu zuten 2020an ospatu beharreko IV. edizioa. Neurri murriztaileek, ordea, kirol froga bertan behera utzi zuten azken unean. Iaz berrartu zuten urteroko zita, 2021eko azaroaren 14an.

ESKU PILOTA

## “Giro eta ikuskizun bikaina” nagusi, Emakumezkoen Binakako Eusko Label Txapelketako finalerdietan

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Esku pilota jaialdi bikaina egon zen otsailaren 19an Amurrioko frontoian. Eusko Label Binakako Txapelketaren finalurrekoak jokatu ziren bertan, hamaika babesleren eskutik. Ados Pilota Elkartek sare sozialetan adierazi duenez, "giro ederra eta partida

bikainak" ezaugarritu zuten arratsa, "finalerdiek behar dituzten osagai guztiek". Pilotari guztiek Azkoitiako finalerako txartela lortzea zuten helburu. Santos-Urriza bikoteak 22-10 irabazi zuten Mondragon eta Zaldainen, Iturriaga-Egañak 22-12 hartu zituzten mendean Kortazar eta Iraeta; eta Zalaia-Lopez bikoteak 22-17 garaitu zitu en Etxekolonea eta Mujika.

Azkoitian, otsailaren 27ko finala jokatuko den plaza berdinean, aurkeztu zuten iragan abenduan Eusko Label Binakako Pilota Txapelketa. Ados Pilota klubak, Euskal Herriko emakumezkoen lehenengo klub profesionalak, antolatu du norgehiagoka, eta frontoiak emakumeenak ere badirela aldarrikatzea du helburu.

# herriko plaza



## Urdax eta Laiene

Eskerrik asko bizitza honetan zuen ama izatea aukeratzeagatik...asko nago ikasten zuengandik. Jarraitu eguzkiari bueltak ematen...

**Ama**



## Olaia

Zorionak Olaia familia guztiaren partez! Egun ederra izan!

**Zure familia**



## Unax

Abestiak dioen bezala: ametsetan, ametsetan 11 urte pasa dira! Zorionak Unax!!! Maite zaitugu!!!

**Etxekoak**



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Martxoaren 9an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

ERRAZA

	1	4	5		2	9		
5	7	9		4		2		8
	2					5		
		2	3					
		8		2	9	3		
				8				
		1	8					3
				3	4	8	7	
			6		7	4		

ZAILA

	4	8	2	7		3		
		3	5					
5		7		8			6	4
4							7	3
6	3		8					
2				3		8	9	
						6	5	
					2	7	4	8
		4		6				2

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Pirritx, Porrotx eta  
Marimototsen 'Kui-kui'  
ikuskizuna Amurrion  
ikusteko sarrera**

Bañueta kiroldegiko ikuskizuneko sarrera baten zozketa. Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** martxoak 3, 12:00etan.

# KOKORIKO RIKO


## BALIABIDE GUNEA

### MARIAKA ERRALDOIA

**Egilea:** IES Zaraobe BHI (Amurrio)

**Urtea:** 2021

IES Zaraobe BHI ikastetxeko ikasle, irakasle eta eskolaz kanpoko hainbat kidek parte hartu dute. Mariaka Proiektuaren oinarria Mariaka Indartsuaren kondaira da, istorio honen bidez Amurriok eta Aiaraldeak eskaintzen duten ondare kultural eta naturala ezagutarazi eta balioetsi nahi dituzte.



### K@NTU K@NTARI

**Idazlea:** Kokoriko hezkuntza Faktoria

**Urtea:** 2020

Eskualdeko 9 herrietako abestiak, istorioak eta ilustrazioak barne hartzen dituen CD-liburua. Abesti bakoitzean, herriko balio edo gertakizun bat nabarmentzen da. Egitasmoaren helburua tokiko historia zein ondarea euskaraz eta kultur pieza ezberdinekin transmititzea izan da.



## JOLAS GUNEA

### PUMP-TRACK PISTA

**LEKUA:** Latorro Auzoa (Laudio)

**LEKUA:** 2 urtetik gora

**AZALPENA:** Parkeak 1.100 metro karratu inguruko azalera du. Bereizitako baina elkarrekin lotzeko moduko bi ibilbidetan bereizten da. Pump track-aren helburua: zirkuitua pedalei eragin gabe edo patinaren kasuan, oina erabili gabe gaintitzea, soilik norbanakoaren gaitasuna eta salto zein goraguneak baliatuz. Patinarekin, bizikletarekin, skate-arekin, ... gora eta behera aritzeko leku eta giro aproposa.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Aukera berriak

Ekainean ikasturte korapilatsuari agur esan genion, oso ondo jakin gabe nolakoa izango zen berria. Ikasturte korapilatsua aurrekoa bai, baina baita aukeraz eta aldaketaz beterikoa. Burbuletan edota talde txikietan funtzionatu izanak erabakiak hartzeraz bultzatu gintuen askori: familian, eskolan, lanean, ... Gure barruak mugitu zituen bizitakoak, argi dago. Horieta bat hezkuntza proiektuetan adibidez, kalera eta naturara ateratzea izan zen. Familiei zirak eta katiuskak eskatu eta aire librean egoteari garrantzia eman zitzaion. Eskola, inguru eta adin tarte batzuetan pentsa ezina zena egi bilakatu zen. Jolasteko, harremantzeko, esperimintatzeko eta ikasteko beste modu bat, eskolarekiko beste bizipen bat, ate berria. Egoera "arrunta" batean agian ezinezkoa eta zoroa batzuentzat, eguraldi txarra aitzaki. Katia Hueso-k behin aipatu zuen "eguraldi txarrari beldur irrazionala diogu, haurrak euriarekin disolbatu ahalko balira bezala". Ikasturtearen ia erdian gaude, lehenengo hiru hilabetearen balorazioa egiten badugu... Aurreko ikasturteak zabalduko atea irekita mantentzen ari gara? Ez ditugu ahaztu nahi kalean eta naturan bizitakoak. Espazio publiko ugari ditugu inguruan: plazak, parkeak, belardiak, natur guneak, ... Aisialdi taldeen urteetako aldarrikapena izan da kalea berreskuratzea, haur eta gazteak kalean jolastu, bizi eta hezteko beharra. Jolasari eta haurrei kendu zaien lekua eta balioa berreskuratzea. Biziaz parte izan beharrean, momentu eta leku batzuetan egin daitekeen gauza gisa tratatu izan da jolasa. Bizitza ez al da jolasa, eta jolasa ez al da bizitza? Jarrai dezagun kalea berpizten, bizitzen eta hartzen.

## ZURE PROPOSAMENAK BIDALI!

### ZER BIDALI?

Hamabostekariaren Kokoriko orri honetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamenak: liburuak, ipuinak, mahai- jolasak, webgune interesgarriak, errezetak, jolasak, edota gustuko dituzun jolas-gune/plan dibertigarriak, iritzi zutabeak, ipuin laburrak, ....

### NOLA BIDALI?

Bidali zure proposamena, kokoriko@aiaraldea.eus helbidera. Ez ahaztu zure izen- abizenak, adina eta herria zehaztea.





# Itzala


Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri otsoz eta Txanogorritxo mozorrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.




**ALFABETOA**

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
W	X	Y	Z	.	:	,	!	?	+	=


**Mezua** Konturatuko zinen bezala, orriotako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



ETA NI EZ AL NALI INORK GOGOAN?



## SOLUZIOAK



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera



Emerson Posadas

### BERENICE OSORIO

JAIOTERRIA  
MEXIKO (1977)

BIZILEKUA  
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA

IKASKETAK DELA MEDIO ETORRI ZEN EUSKAL HERRIRA, ETA BERE EGUNGO BIKOTEA EZAGUTU ZUEN.



### CHIHUAHUA



#### DESKRIBAPENA

Mexikoko estatu zabalena da Chihuahua. Izen bereko hiria du hiriburu, baina Ciudad Juarez da gune populatuena. Iparraldean Texasekin eta Mexiko Berriarekin egiten du muga. Gauzak hala, zonaldeko egunerokoan eragin nabarmena dauka Estatu Batuekiko mugak eta bertako politikek.

#### AZALERA

301.340 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

3,4 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZA

Gaztekania eta 67 hizkuntza indigena.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
**Tirada:** 10.000 ale.  
**Maiztasuna:** Hamabostekaria  
**Lege gordailua:** BI-1230-2013  
**Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus  
**Publizitatea:** publizitatea@komunika.eus  
**Tifnoa:** 688 62 53 94  
**Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio. Araba. 01400  
**Telefonoak:** 94 656 85 54/688 62 59 00  
**Web-gunea:** www.aiaraldea.eus  
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea, Elixarrait Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunete Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

## “Mexikoko larrialdi zerbitzuetako deiek ez dute zerikusirik hemengoekin”

**Duela 13 urte etorri zinen Euskal Herrira bizitzera. Nolatan?**

Medikuntza ikasketak egin nituen Mexikon eta radiologian espezializatu nintzen. Basurtuko Ospitalera etorri nintzen bularreko minbiziko biopsiak nola egiten ziren ikustera. Bertan ezagutu nuen Iñigo, nire bikotekidea, eta hemen geratzea erabaki nuen. Zortea probatzea zen nire asmoa, ez nekielako lana lortuko nuen edo ez.

**Kostatu zitzaizun lana topatzea?**

Ez. Tramite guztiak egin behar izan nituen nire medikuntza titulua homologatzeko eta hemengo hiritartasuna eskuratzeko. Baina, behin hori eginda, klinika pribatuetan lan egiten hasi nintzen.

**Larrialdi zerbitzuetan egiten duzu lan orain.**

Bai. Anbulantzia medikalizatu eta larrialdien koordinazioan aritzen naiz. 112 zenbakira deitzen baduzu eta mediku batekin pasatzen bazaituzte, baliteke mediku hori ni izatea.

**Mexikon ere aritu zinen horrelakoetan?**

Ez. Gainera, Mexikoko larrialdi zerbitzuek ez daukate zerikusirik hemengoekin. Hemen hainbat motatako ambulantiak daude. Mexikon mota bakarra dago, eta erantzute-denbora eta arreta oso ezberdina da.

Mexikoko larrialdi motak ere oso ezberdinak dira hemengoekin alderatuta. Bertan jasotzen diren abisu gehienak oso emergentzia larrienak dira, eta oso baliabide

gutxi daude artatzeko. Hemen, aldiz, horren larriak ez diren abisu asko daude. Kasu arin gehiegi artatzen ditugu, artatu beharko ez genituzkeenak.

**Chihuahua hirikoa zara.**

Bai. Mexikoko estatu handiena da, eta Espainiako Estatuaren erdia da zabaleran. Txesekin egiten du muga.

**Estatu Batuen parean bizi zinen, beraz.**

Bai. Hego Amerikatik Estatu Batuetara bizitza hobe baten bila doazen persona guztiak igarotzen dira bertatik. Heriotza asko daude bertan, jendeak ezin duelako muga igaro eta ez duelako nola bizi.

Ni bizi nintzen tokitik mugara arte hiru orduko bidaia dago. Baina Mexikon oso ohituta gaude

asko bidaiatzera, eta hiru ordu ez dira ezer. Hemen, aldiz, hiru orduko bidaia bat oso luzea iruditzen zaigu.

Oso ezberdina da distantziekiko pertzepzioa. Batzuetan Estatu Batuetara joaten ginen asteburuetan, erosketak egitera, merkeagoa zela iruditzen zitzaigulako edota bestelako produktuak zeudelako.

**Zaila zen muga igarotzea?**

Ez, bisa bat izan behar duzu, eta horretarako paper asko aurkeztu behar dituzu, Mexikon lana, ikasketak eta jabetzak dituzula frogatzeko. Hau da, erakusteko ez zarela Estatu Batuetan geratuko. 10 urte inguru irauten du baimenak, eta berritu egin behar duzu gero. Ez da horren erraza.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

